**PILOTA: 600 LAGUN BERGARA HIRIA TXAPELKETAKO FINALEAN /10**

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko maiatzaren 30a • IV. urtea
112. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



**ITZIAR MIELGO**

*"Udan hondartzara ez joatea gomendatzen diegu herritarrei talde ekologistok"* /7




**Goienka2a**
**Kalamu haziak saltzeko lehen denda zabalik Debagoienean**

**Barruan, zure herriko aldizkaria**

**OÑATI**
**Aspaldiko partez, Kalebarrengo jaiak asteburu honetan /6**

**KIROLA: TXARTEL BATERATUA 5.106 BIDER ERABILI DUTE /11**

**ASTEKO GAIA: MAIATZAREN 25EKO UDAL HAUTESKUNDEEK DEBAGOIENEAN UTZITAKOA /2-3**

# EAJ-EAren nagusitasuna ez ohiko hauteskundeetan

**Koalizioak ibarreko herri guztietan, Gatzagan izan ezik, gobernatuko du. Alderdiko ordezkariek oso iritzi ona azaldu dute, baina salatu dute "herritar askoren ordezkari falta".**

**Debagoieneko bigarren indarra osatzen dute plataformek, nahiz eta orain dela lau urte EHk baino 5.900 boto gutxiago jaso. "Legea hautsi barik, alternatibak bila daitezke", diote.**

ARALAR
**Lau herritan aurkeztu da, 13 zinegotzi lortu ditu eta, bost botogatik, ez du Elgetan irabazi. Herri horretan, baita Bergaran eta Aretxabaletan ere, bigarren geratu da udaletan.**

PSE-EE PSOE
**1999an baino hiru zinegotzi gehiago izango ditu Debagoienean, eta Oñatin ordezkaritza edukitzea lortu du. "Nazionalistek zer egitea erabakitzen duten ikusiko dugu", dio PSE-EEk.**

**Igoera handia izan du: hiru herritan lortu du ordezkaritza eta Arrasaten eta Eskoriatzan presentzia areagotu egin du. "Etorkizunerako alderdi guztion konpromisoa behar da", diote.**

**Aurreko hauteskundeetan baino 236 boto gutxiago izan ditu; hala ere, lehen zituen bost zinegotziei eusten die PPk. Alderdia pozik dago emaitzekin: "Ez dugu geneukana galdu", esaten dute.**







**DEBAGOIENA**

## Hainbat ekimen Barandallaren egoera salatzeko

Bautista Barandallaren kasuan 92. artikulua bete dadin eskatzeko atxikimenduak sinatu dituzte Debagoieneko hainbat elkarte eta pertsonaia ezagunek: besteak beste, alderdi politiko eta sindikatu nagusiek, Aitor Lopez Rekarte, Alberto Iñurrategi, Markel Irizar eta Itsaso Egaña kirolariek eta Ebaristo eta Ruper Ordorika musikariek. /5

**ARRASATE**

## Musika Eskola eraikiko dute lehengo Zerrajeran

Musika Eskola eraiki gura du Udalak Arrasaten. Hain justu ere, Zerrajeran eraikiko dituzten etxebizitzen etxabea egokituko dute horretarako; guztira 1.200 m²-ko etxabea. Helburua da gero han jardutea musikarekin zerikusia duten herriko zenbait taldek. Edozelan ere, oraindik proiektua idazteko laguntza teknikoa esleitzeko tramiteekin dabiltza. /6

**DEBAGOIENA**

## Metalaren grebak erantzun partziala izan du ibarrean

Metal arloko langileak grebara deitu zituzten ELA eta LAB sindikatuek atzo, maiatzak 29, eta gaur, hilak 30. Horrenbestez, ez dute lanik egin, ADEGI patronalarekin negoziaketa mahaia etenda dutela protestatzeko. Aurrez beste hainbat greba egun eta protesta ekitaldi ere egon dira arlo horretan. /4

Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
M. ALTUNA
Aurrematrikula epea ZABALIK: ekainaren 2tik 11ra



Ibargarai 1 • BERGARA
Tf. 943 76 24 91/ 943 76 38 40
Posta-e: imaltuna@sarenet.es
www.imaltuna.com
Bulego orduak:
09:00etatik 14:00etara

2003/2004 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-ESKAINTZA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta Kautxugintza

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Mekanizazioa (goizez eta gauez)
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administraritza Kudeaketa

DEBA GARAIA
ETXE AGENTZIA SAREA
Arrasate–Bergara–Elgoibar–Donostia
API
Bulego berria Arrasaten.
Zarugalde 1
ARRASATE
943 77 13 02
943 77 14 27
Faxa: 943 79 12 40



DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8-9 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Hauteskundeek ibarrean marraztu duten mapa berria

- EAJ-EAk bederatzi udal irabazi ditu; sei, erabateko gehiengoarekin
- Plataformen legez kanporatzea eta Aralarren agerpena, erabakigarriak

LEIRE KORTABARRIA

Aldaketa handiak ekarri dituzte maiatzaren 25eko udal hauteskundeek Debagoienera. Hainbat faktore berrik baldintzatu dituzte emaitzok: alde batetik, herri plataformei eta, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, AuB taldeari parte hartzeko debekua; bestetik, alderdi politiko berri baten agerpena, beste batzuen artean.

Horrenbestez, mapa politiko berriak kolore aldaketa nabarmena uzten digu, 1999ko hauteskundeen ostekoaren aldean.

**GUZTIAK, GATZAGA IZAN EZIK**

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuola, lehen Batasuna alderdiko udalak, EAJ-EAra pasatu dira oraingoan. Horrenbestez, alkatetza guztiak, Gatzagakoa izan ezik, koalizioaren esku geratu dira; Gatzagan herritarren zerrenda independentea izan da bozkatuena.

*EAJ-EAk lau udal gehiago irabazi ditu ibarrean; guztira zortzi herritan agindukodu*

EAJ-EAk 15.982 boto eskuratu zituen ibarrean, eta 20 zinegotzi izango ditu; bigarren alderdi bozkatuena herri plataformak izan dira. Guztira 8.140 boto lortu zituzten ibarrean, baina ezingo dute zinegotzirik eduki; PSE izan zen hirugarren alderdia, 4.293 boto eta 11 zinegotzirekin; laugarren, Aralar, (3.650 boto, lau herritan, eta 13 zinegotzi); segidan, EB-IU alderdia (2.939 boto eta zortzi zinegotzi); eta, azkenik, Alderdi Popularra (2.542 boto eta bost zinegotzi).




GOIENKARIA

Debagoieneko emaitzen gaineko informazioa ematen lehenengoa izan zen GOIENKARIA biharamunean.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA



gerora begira

eskaintza AKADEMIKOA

goi eskola politeknikoa

ARRASATEko campusa Telf: 943 79 47 00
- 1. Zikloko Ikasketak
  Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa
  Sistemen Informatikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Elektronikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Diseinuan Injinerutza Teknikoa
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
- 2. Zikloko Ikasketak
  Industri Antolakuntzan Injinerutza
  Industri Elektronikan eta Automatikan Injinerutza
  Informatika Injinerutza
  Industri Injinerutza

GOIERRIko campusa Telf: 943 88 00 62
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa

LEA-ARTIBAIko campusa Telf: 94 616 90 02
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa Polimerotan

enpresa zientzien fakultatea

OÑATIko campusa Telf: 943 71 80 09
- 1. Zikloko Ikasketak
  Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa
  Zuzendari Idazkaritza
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura:
  - Bide kurrikularra: Finantza Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Merkatal Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Erakundeen Kudeaketa

ELGOIBARko campusa Telf: 943 71 41 32
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura

BIDASOAko campusa Telf: 943 63 91 29
Enpresa Zientziatan Diplomatura
- Bide Kurrikularra: Enpresa Logistika eta Garraioa
- Bide Kurrikularra: Nazioarteko Merkataritza

humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea

ESKORIATZAko campusa Telf: 943 71 41 57
- 1. Zikloko Ikasketak
  Irakasle Ikasketak:
  - Haur Hezkuntza
  - Hezkuntza Berezia
  - Atzerriko Hezkuntza
  - Heziketa Fisikoa
- 2. Zikloko Ikasketak
  Psikopedagogian Lizentziatura
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Humanitateak-Enpresa Lizentziatura

INSKRIPZIO EPEA: ekainak 20ra arte

www.mondragon.edu



ANDER GILLENEA

Boto kontaketaren une bat, joan den domekan, Arrasaten.

HAUTESKUNDEAK 2003: UDALETARA ETA BATZAR NAGUSIETARA BOTOAK DEBAGOIENEAN




BATZAR NAGUSIAK

## Zortzi hautatuak: sei Gipuzkoan; bana Bizkaian eta Araban

**Zortzi debagoiendar aukeratu dituzte Batzar Nagusietarako. Isabel Saludek (EB-IU) eta Mireia Unamunok (AuB) ere bazuten aukera (boto guztiek balio izan balute, azken hau ere batzarkide liteke). EAJ-EAtik, Iñaki Nafarrate (Araba), Iñaki Galdos, Amaia Altube , Koldo Pereira eta Amaia Larrañaga aukeratu dituzte; PSE-EEtik, Paco García; EB-IUtik, Martin Calvo (Bizkaia); eta Aralarko hautetsi bakarra Deba-Urola barrutiko Joxe Etxeberria izan da.**

HERRI PLATAFORMAK

## Legez kanporatzeak alderdi txikiagoei aukera eman die

**EHk 1999an izandako emaitzekin alderatuta, plataformek 5.900 boto gutxiago izan dituzte aurten. Adituen arabera, boto horiek EAJ-EAra joan dira, hein batean; baina, batez ere, Aralar alderdi berrira eta EB-IUra. EB-IUk lehen aldiz lortu du eserleku bat Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan. Herri plataformen 8.140 botoak legezkoak izan balira, bigarren indar izango lirateke, hogei zinegotzirekin; hala ere, ez zuketen udalik irabazi izango.**

ALDERDI BERRIA

## Aralar alderdiak 13 zinegotzi lortu ditu Debagoienean

**Aralar alderdiak bere inoizko lehen hauteskundeen proba pasa du, eta alderdikideek oso iritzi ona azaldu dute: lau herritan, 3.650 boto eta 13 zinegotzi lortu dituzte, eta bigarren indar dira Bergaran, Elgetan eta Aretxabaletan. Deigarria da Elgetako kasua: han, EAJ-EAko Patxi Basauri alkateak, 27 urte karguan izan ostean, berriro ere irabazi ditu hauteskundeak, baina bost botoko aldea baino ez zion atera Oxel Erostarbe Aralarko alkategaiari.**

ETORKIZUNA

## Udalbatza berriak osatzen direnetik aurrerako lan ildoak

**Ekainaren 14an zin egingo dute kargua hautetsi berriek. Orduan, zer? Alderdi politiko batzuek erabaki dute EAJ-EAk zer egiten duen ikustea euren jarrera definitzeko; beste batzuek diote gertu daudela alderdi guztiekin, baita herri plataformetako kideekin ere, konpromiso batera heltzeko. Hautatutako zinegotzi batek azpimarratu du udalak erakunde bereziak direla, "gertukoak" direlako, eta horrek beharrezkoago egiten duela guztien parte hartzea.**

# Zelan baloratzen dituzu Debagoieneko emaitzak? Eta zelan ikusten duzu etorkizuna?



**IÑAKI NAFARRATE**
**EAJ-EA**

Emaitza atipikoak izan dira hauek. EAJ-EA koalizioan oso pozik gaude geure emaitzekin, baina salatzen segitzen dugu herritar asko ordezkari barik gelditu direla. Ikusi egin behar zelan zehazten diren udal ardurak ezohiko egoera honetan. Hainbat alderdik –legezkoak zein legez kanpokoak– gogoeta egin beharko lukete. Era berean, Aralar talde berriak zeresan handia izango du.



**MIREIA UNAMUNO**
**Herri plataforma**

Egoera kontuan hartuta, herri plataformon emaitzak oso positiboak izan dira. Orain, udal politikaren ildoak beste batzuen eskutan daude; guk hainbat proposamen egingo ditugu, baina eurek dute azken esana. Bi aukera daude: batetik, legea haustea eta hauteskundeetako emaitzak onartzea; eta bestea, seguruenik gailenduko dena, legea hautsi barik, formula alternatiboak bilatzea.



**JOXE ETXEBERRIA**
**Aralar**

Aurkezten ginen lehen aldia izateko, oso emaitza onak izan ditugu, eta aurrerantzean, beste herri batzuetan ere aurkezteko aukerak aztertuko ditugu. Zorionak eman nahi dizkiet, gu oraindik ondo ez ezagutu arren, euren konfiantza eman digutenei. Udal politikan, lehenik, kanpoan utzi dituztenak ere kontuan hartu behar ditugu, eta ikusi alderdi bakoitza noraino dagoen gertu beretik emateko.



**PACO GARCÍA**
**PSE-EE**

Debagoieneko emaitzak oso positiboak izan dira PSE-EE-rendako: bai boto eta zinegotzi kopuruan, bai eta ehuneko bestekoan ere, gora egin dugu. Etorkizunari dagokionez, goizegi da oraindik ezer jakiteko. Argi dagoena da nazionalisten esku dagoela guztia. PSEk ikusiko du haiek zer egiten duten eta zertara dauden prest, eta orduan finkatu ahal izango dugu hitzarmenik egin daitekeen edo ez.



**JOSEBA UGALDE**
**EB-IU**

Gure alderdiak emaitza bikainak lortu ditu ibarrean, 3.000 botorekin eta sei zinegotzi gehiagorekin. Orain, oso zaila da udal politikan zer gertatuko den aurresatea, egoera juridikoak guztia baldintzatuko duelako. Nik uste dut alderdi guztiek planteamendu komuna egin behar dugula, eta konpromisoak hartzeko gertu egon. Guztiok onartuko dugun konpromisoa behar dugu, ez bakarrik batzuenak.



**ITZIAR LAMARAIN**
**PP**

Aurrekoan bezain emaitza onak lortu ditugu, kontuan hartuta azken aldian jaso dugun egurra. Bergaran, Arrasaten, Aretxabaletan, Oñatin… zinegotziak ditugu. Ez dugu bat ere galdu; are gehiago, ehuneko bestekoan gora egin dugu, errolda txikiagoa izanda. Orain, herriaren alde lan egiteko prest gaude. Zonako komiteak sortuko ditugu eta egoera aztertuko dugu gure ildoak definitu aurretik.




ENEKO AZKARATE
Aralarko kideak pozik agertu ziren lortutako emaitzekin eta eskerrak eman zizkieten domekan babesa eman zieten debagoiendarrei.

# Plataformei dagozkien zinegotziak kontuan hartzeko prest dago Aralar

*Betiere, "errespetuan oinarritutako lankidetzan" baldin bada*

ENEKO AZKARATE

**Debagoieneko Aralarrek prentsaurrekoa eskaini zuen eguaztenean. Pozik agertu ziren Aralarko kideak, hauteskunde berezi hauetako giro zatarraren gainetik, "emaitza politak" lortu dituztelako.**

Prentsaurrekoan izan ziren Bergara, Aretxabaleta eta Elgetako alkategaiak, Ainhoa Larrañaga, Xabier Sarasua eta Oxel Erostarbe. Prentsaurrekoan ez zen egon Joxe Etxeberria, Arrasateko alkategaia eta Aralarrek Euskal Autonomia Erkidegoan lortu duen batzarkide bakarra, Deba-Urola barrutitik lortutako 3.556 botoek eman dioten babesagatik, hain justu ere.

Aralarko ordezkariak pozik agertu ziren prentsaren aurrean: "Kontuan izanda Aralar talde sortu berria dela, hauteskundeetara lehenengo aldiz aurkezten zela, hauteskunde hauek bereziak izan direla plataformen legez kanporatzeak sortu duen giroarengatik, eta hainbat tokitan zerrendak aurkezteko eragozpenak izan ditugula –zortzi herritan aurkeztu dituzte bakarrik–, oso balorazio positiboa egiten dugu", esan zuen Ainhoa Larrañagak.

Debagoienean eta Getarian lortutako emaitzak azpimarratu zituen Ainhoak. Baita Nafarroan lortutakoak ere. Bizkaian eta Araban hain emaitza onak lortu ez dituztela aipatu zuen.

Oxel Erostarbek –Elgetan bost botogatik alkatetza lortu ez duenak– hauteskunde hauetan Aralarri 60.000 lagunek babesa eman diotela nabarmendu zuen eta boto horiek eman dizkieten ordezkaritzaren berri eman zuen: Nafarroan lau legebiltzarkide eta Iruñean zinegotzi bi; Gipuzkoan batzarkide bat; eta, aurkeztu diren herri guztiak zenbatuta, 49 zinegotzi Euskal Herri osoan barrena, horietatik 13 Debagoienean. Herrietako plataformen botoak zenbatuz gero, hauek izango lituzketen zinegotziak kontuan izanda Aralarrek 42 zinegotzi izango lituzkeela ere esan zuen.

Azkenik, Xabier Sarasuak esan zuen Aralar alternatiba politiko berria dela: "Ilusio berria ekarri du Aralarrek, azkenaldian hainbat herritarrek galdutako itxaropena berreskuratzea lortu dugu", esan zuen, eta herritarren arteko lankidetza bultzatuko dutela, jarrera eraikitzailea erakutsiko dutela eta alderdikeriak alde batera utziko dituztela gaineratu zuen.

Baliogabetutako herrietako plataformek lortu duten babesaren gainean ere mintzatu ziren Aralarkoak. Plataformen botoak kontuan hartzeko eta haiei dagozkien zinegotziak errespetatzeko prest daudela adierazi zuten, baina betiere, "errespetuan oinarritutako lankidetzan", gaineratu zuten.

## BAILARAN LABUR

### HUEZIk hiru urterako ituna sinatu du Arrasateko Emun kooperatibarekin

Mondragon Unibertsitateko HUEZIk eta Emun kooperatibak hiru urterako ituna egin dute. Hitzarmenaren helburua HUEZIk Emunen duen partaidetza txikitzea da, batetik; hortaz, hemendik aurrera ez da bazkide erabiltzaile izango. Bestetik, bien interesekoak diren proiektuetan erakunde bien arteko lankidetza bultzatu nahi dute. Esaterako, fakultateko ikasleek praktikak edo ikasketa amaierako proiektuak Emun-en egiteko aukera izan dezaten prestatuko du kooperatibak bere egitura. /I.A.

### Bergarako, Antzuolako eta Elgetako ezinduendako batzarra izango da Aitonetan

Aurten Ezinduen Europako Urtea dela eta, Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazioa kanpaina berezi bat egiten ari da herriz herri. Hitzaldien bidez, ezinduei elkar ezagutzeko eta euren arazoak trukatzeko aukera eman nahi diete, baita laguntzak eskatzeko orduan elkarrekin indarra egiteko modua ere. Bergarako, Elgetako eta Antzuolako ezinduei eta euren senide eta lagunei ere dei egin nahi diete ekainaren 3an, Aitonetan, arratsaldeko zazpietan egingo den batzarrean parte hartzeko. /I.A.

### A-8 autobideko bidesariak merkatu egingo dituzte ekainaren 6tik aurrera

Datorren ekainaren 6an, A-8 autobidea esku publikoetara pasatuko da. Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek izango dute erreplde horren ardura, eta bidesariarekin segitzea erabaki dute. Prezioak, ordea, merkatu egingo dituzte. Donostia eta Bilbo arteko ibilbidea egiteko 6,10 euro ordaindu beharko ditugu, orain ordaintzen dugunaren erdia. Bestalde, Gipuzkoako zatiaren ohiko erabiltzaileei %25 eta %75eko deskontuak egingo dizkiete.




I.A.
Bergaran manifestazioa egin zuten, ELA eta LAB sindikatuek deituta.

# Metal arloko grebak erantzun partziala izan du ibarrean

*Lan duina eta soldaten igoera eskatu dituzte langileek*

IRATI AGIRREAZALDEGI

Metal arloko langileak grebara deitu zituzten ELA eta LAB sindikatuek. Atzo, maiatzaren 29an, eta gaur, 30ean, hortaz, ez dute lanik egin, ADEGI patronalarekin negoziaketa mahaia etenda dutela protestatzeko. Aurrez beste lau greba egun izan dira arlo horretan, eta sindikatuen esanetan, langileen %80 irten da grebara. Hala ere, ez dute mahaia berriro abiatzerik lortu.

Sindikatuek patronalaren jarrera kritikatu dute eta patronalak, berriz, sindikatuek egindako eskaerak betetzea ezinezkoa dela dio. Langileen eskaeren artean, soldaten %6ko igoera, lanorduak 20ra jaistea, enplegu duintasuna eta emakumeen berdintasuna daude.

Sindikatuen esanetan, fase bat amaitu da eta etapa berri bati ekingo diote. Itunen fasea izango da, baina esan digutenez ez daude edozein itun sinatzeko prest.

Grebaren erantzuna partziala izan zen ibarrean, baina langileek manifestazioetan parte hartu zuten.

publidenak.

Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.

- Enpresetara bisitak
- Enpresa-opariak
- Promozioak
- Publizitate-artikuluak
- Gabonetarako otarrak
- Artikulu pertsonalizatuak
- Diseinua. Arte grafikoak.
- Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
- Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
- Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
- Trofeoak. Txapela bordatuak.
- Era guztietako errotuluak.
- Seinaleak, plaka ofizialak.
- Pankartak eta banderak.
- Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak

Edozein kopuru. Epe laburrak.
Aurrekontuak konpromiso barik.
Erakusketa zabala.

**HELBIDE BERRIA:**
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE

TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

# Bautista Barandallaren osasun egoera larria salatzeko, ekitaldiak ibarrean

*Hainbat debagoiendar ezagunek haren aldeko atxikimendua sinatu dute*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Bautista Barandalla preso etxarriarraren osasun egoera oso larria denez, haren askatasuna eskatzeko manifestazioa deitu du Debagoieneko Etxerat-ek datorren aste bukaerarako.**

Gaixotasun larri eta sendaezina du Bautista Barandalla Etxarriko presoak. Iruñeko Espetxe Epaitegiko epaileak, ordea, 92. artikulua ukatu dio, kartzelako bizi baldintzek ez dutela Barandallaren egoera okertu esanez. Horrez gainera, Zaragozako Zuera espetxera eraman dute.

Bautista Barandallaren egoera salatzeko, Debagoieneko Etxerat-ek hainbat ekintza antolatu ditu datorren aste bukaerarako: ekainaren 5ean hitzaldia egingo dute Barandallaren neskalagunak eta medikuak Oñatiko udaletxean; ekainaren 7an prentsaurrekoa egongo da Bergarako plazan eta gero manifestazio isila herriko kaleetan barrena. Debagoiendarrei ekitaldietan parte hartzeko dei egin die Etxerat-ek.

*Barandallaren medikuak eta neskalagunak hitzaldia egingo dute Oñatin*

Bautista Barandallaren kasuan 92. artikulua bete dadin eskatzeko atxikimenduak sinatu dituzte Debagoieneko hainbat elkarte eta pertsonaia ezagunek. Besteak beste, Sozialista Abertzaleek, Aralarrek, Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak, Zutik eta EAJko ordezkariek, ELA, LAB eta ESK sindikatuetakoek, Aitor Lopez Rekarte, Alberto Iñurrategi, Markel Irizar, Jon Urtzelai eta Itsaso Egaña kirolariek, Kañeria 13, Iskanbila, Anger, Deskontrol musika taldeek, Aitor Uriarte, Ebaristo eta Ruper Ordorika musikariek, unibertsitateko hainbat irakasle eta kultura eta kirol elkartek, baita hainbat preso ohi eta iheslarik ere. Barandallaren egoera salatzeaz gain, hura aska dezaten eskatu dute.



## Anorexia eta bulimia dutenei laguntzeko

Zabalik dago anorexia eta bulimia gaixoei eta haien senitartekoei laguntza eskaintzeko Acabe elkarteak Debagoienean ireki duen bulegoa. Hil honen 14an inauguratu zuten egoitza eta Arrasateko Juan Luis Iñarra kaleko 30-32an dago. Astelehenetan eta eguenetan dago zabalik: 16:30etik 19:30era, astelehenean, psikologoaren laguntzarekin eta 17:30etik 20:00etara, eguenetan, gurasoen laguntzarekin. Acabe elkarteak 1994az geroztik dihardu lanean anorexia eta bulimia gaixotasunen aurka. Izan ere, 13 eta 21 urte arteko emakumezkoen artean, 100etik lauk dute gaixotasun horietako bat. /E.A.

# Bergaran hasitako ikerketa bati esker prostituzio sare bat desegin dute

*22 afrikar atxilotu dituzte etorkinen trafikoarekin zerikusia dutelakoan*

I.A.

**Espainiako poliziak prostituzio sare bat desegin du, Bergaran prostituzioan aritzera behartutako emakume baten deklarazioei esker. 22 lagun atxilotu dituzte, etorkinen trafikoarekin zerikusia dutelakoan.**

Bergarako Yola klubean iazko maiatzean hasi zuten ikerketa, eta dagoeneko izan ditu hainbat ondorio; izan ere, Espainiako poliziak etorkinen trafikatzaile sare batekin lotura izan dezaketen 22 lagun afrikar atxilotu ditu. Atxiloketok Bilbon, Donostian, Madrilen eta Zaragozan egin dituzte.

Emakumeek euren burua saldu zuten Espainiako Estatura lan bila etortzeko, eta gero prostituzioan jardutera behartu zituzten. Egoera horren aurrean, emakumeetako batek salaketa aurkeztu zuen eta hori izan da, hain zuzen ere, prostituzio sarea desegiteko giltza.

## BAILARAN LABUR

### Alzheimer gaixoak zaintzeko boluntario bila dabil Gipuzkoako alzheimer gaixoen elkartea

Gipuzkoan alzheimer gaixotasuna duten senitartekoak batzen dituen elkartea, Afagi, gaixo horiek zaintzeko boluntarioen bila dabil. Hain justu, alzheimerra duten senitartekoei eguneroko eginkizun zail horretan laguntasuna eskaintzeko gertu dagoen jende bila dabiltza, eta, horretarako, kanpaina berezia abiatu dute. *Lagundu gogoratzeko ahalmenik ez duenari* da kanpainaren goiburua. Interesa dutenek 943 29 71 18 telefono zenbakira dei dezakete. /E.A.



ANTZUOLA

## Oskorriren kontzertua izango dugu domeka arratsaldean

*The pub ibiltaria* ikuskizunarekin datozkigu Oskorrikoak, eta Udal Pilotalekuan egingo dute kontzertua domekan, arratsaldeko zazpietan.

Zazpi urte daramatza taldeak *The pub ibiltaria* ikuskizunarekin eta zazpi disko kaleratu ditu esperientzia horrekin.

Publiko osoa da kontzertu horietako protagonista; horixe da, hain zuzen ere, ikuskizun horren oinarria, eta horrexetan ahaleginduko dira domekan ere, frontoira joaten den jende guztia kantuan jartzen, alegia. /A.I.

ARAMAIO

## Pilota partiduak eta kontzertua, biak egongo dira gaur Aramaion

Gaur, barikua, egongo da zer egin Aramaion gau partean. Alde batetik, kirolzaleendako pilota partiduak egongo dira pilotalekuan. Azkenaldian jokatzen dabiltzan Lau t'erdiko ETB Kantxa sariaren barruan pilota partidu bi egongo dira, 21:15ean hasita. Aurretik, Bareako pilotarien txapelketa ere egongo da, 18:00etan hasita.

Eta musika gurago dutenek More Time taldearen kontzertua ikusteko aukera dute Anboto tabernan. 22:30ean hasiko da gasteiztarren rock eta blues kontzertua. /U.M.

ELGETA

## Asentzio Eguna domeka honetan, ekainaren 1ean, ospatuko dute

Egunetan zalantzak sortu diren arren, azkenean domeka honetan, ekainaren 1ean, ospatuko dute elgetarrek Asentzio Eguna. Aurrez, gaur gauean, egubakoitza, kontzertua eskainiko dute Sei Urte, Black Sheeps eta Urgabe taldeek gaztetxean.

Egunean bertan mendi ibilaldia, salda eta txorizo banaketa, Karramarro Lehiaketa, meza, txalaparta, dantza, bazkaria, Bolo Txapelketa, ziklokrosa eta herri jokoak egongo dira Asentziora joaten diren guztiendako./I.A.



OÑATI

## Errekalde auzoko jaiak ospatuko dituzte oraingo aste bukaeran; izan ere, auzotar talde bat elkartu, eta jai horiek berreskuratzeko egitarau zabala prestatu du

Antolatzaileak eurak ere ez daude ziur noiz ospatu ziren azkeneko aldiz jaiak, baina hamabost bat urte izango dira. Kontuak kontu, aurten egitarau zabala prestatu dute. Egubakoitzean hasiko dituzte jaiok: 19:00etan umeendako txorimaloak ibiliko dira; 20:00etan txorizo, gazta eta sagardo dastatzea egongo da eta 22:00etan rock kontzertua, Kañeria 13, Golpe de Estado, Banda Munizipala eta La Polla taldeekin. Zapatuan ere hainbat ekitaldi egongo dira: besteak, beste, mendi bizikleta zeharkaldia 10:00etan, saskibaloi txapelketa 11:00etan, Mus Txapelketa eta erromeria. Domekan, aipagarriena da auzo bazkaria egingo dutela eta bertso saioa egongo dela 20:00etan, Lizaso, Peñagarikano, Irazu eta Maiarekin. /A.I.

ARRASATE

# Musika Eskola eraikiko dute Zerrajerako etxebizitzen etxabean

Musika Eskola eraiki gura du Udalak Arrasaten. Hain justu ere, Zerrajeran eraikiko dituzten etxebizitzen etxabea egokituko dute horretarako; guztira, 1.200 $m^2$-ko etxabea. Helburua da gero han jardutea musikarekin zerikusia duten herriko zenbait taldek.

Edozelan ere, oraindik proiektua idazteko laguntza teknikoa esleitzeko tramiteekin dabiltza. Hortaz, oraindik asko falta da Musika Eskolaren proiektua eginda ikusteko.

**ZELAN BANATU**

Arrasateko Udalaren egitasmoen arabera, Musika Eskolaren barrualdean honako banaketa egingo dute: musika-instrumentuendako 20 gela; beste zazpi gela entsegu kolektiboak egiteko; gela bi musika eta mugimenduarendako; beste bat perkusio-instrumentuendako; irakasleendako gela bat; zuzendariarendako bulegoa; administrazioa eta idazkaritza; biltegia eta artxiboa; biblioteka-fonoteka; auditorioa; eta, jakina, komunak eta aldagelak.

Auditorioari dagokionez, berriz, Arrasateko Udalak zehaztu du, gutxi gorabehera, 50eko lagun taldeek entseguak egiteko baliozkoa izan behar duela. Horren harira, Arrasate Musikaleko bandak eta orkestrak hantxe egingo dituzte entseguak. Kontzertuak ere auditorioan egitea pentsatu dute; hortaz, ikusleendako lekua egokitu beharra dago. Eta, azkenik, balet eskoletarako erabiltzeko asmoa ere badute. /UBANE MADERA

**Zertzelada**

**1.200 $m^2$-ko etxabea erabiliko dute Musika Eskola egiteko; besteak beste, 20 gela, auditorioa eta biblioteka-fonoteka izango ditu**

BERGARA

# Kudeaketarako sistema aurreratuen topaketak, Miguel Altunan

Inguruko enpresaburuei eta kalitate, ingurumen eta lan arriskuen prebentziorako teknikoei eta profesionalei daude zuzenduta topaketok. Ekainaren 19an izango dira, Miguel Altuna Institutuan, eta izena emateko epea ekainaren 16ra arte egongo da zabalik, Miguel Altuna institutuan edo 943 76 38 40 zenbakian.

Kudeaketarako sistema aurreratuek enpresendako duten garrantzia dela eta, topaketon helburua da Bergara eta inguruko enpresaburuak pertsona kualifikatuekin batzea eta esperientziak trukatzea: AENORko zuzendari Tomas Orbeak eta IHOBEko zuzendari Jose Luis Aurrekoetxeak hitzaldia egingo dute. /M.B.



GOIENKARIA

Miguel Altuna Institutuko areto nagusian izango dira topaketak.

ARETXABALETA

## Kurtzebarriko 75. urteurrenerako Kartel Lehiaketa antolatu dute

Kurtzebarri mendian gurutzea jarri zutela 75 urte beteko dira aurten. Hori dela eta, Murrukixo Mendizale Elkarteko kideek ospakizunak gertatzen hasi dira. Hala, lehenengo eta behin, urteurrenaren berri emango duen kartela egiteko lehiaketa antolatu dute. Dagoeneko gura duenak aurkez dezake kartela Murrukixoko egoitzan. Parte hartzeko azken eguna ekainaren 23a (astelehena) izango da. Ospakizun handienak, baina, irailaren 14an egingo dituzte, Kurtzebarri mendiaren egunean, hain zuzen ere. /A.L.

ESKORIATZA

## Eskolarteko Bertso Txapelketako kanporaketa jokatu zen egubakoitzean

Gipuzkoako Eskolarteko 23. Bertsolari Txapelketa egin zuten joan den egubakoitzean Arizmendi Ikastolako Almen gunean. Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko 300 ikasle batu ziren Eskoriatzako ikastetxean, eta bertso-paperak eta bat-bateko saioak egin zituzten. Ikasle gehienak ibarrekoak izan ziren, baina bat-bateko saiorako hemengorik ez eta, Zarautz, Hernani eta Elgoibartik etorri ziren. Mikel Mendizabal eta Aitor Mendiluze bertsolariak egon ziren Almenen gaztetxoak animatu guran. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Oihana Aizpuru soraluzearra da udaletxeko idazkari laguntzaile berria

Idazkari laguntzaile izateko Gatzagako Udalak egindako deialdian parte hartzeko 27 eskaera jaso ziren. Azterketara, berriz, bederatzi lagun aurkeztu ziren. Ohiko prozedurari jarraituz, azterketa teorikoa lehenengo eta hura gainditu zutenek lanpostuari dagokion azterketa praktikoa egin zuten. Oihana Aizpuru soraluzearra izan zen froga guztiak gainditu zituen hautagai bakarra. Oihanak eskarmentu handia du idazkari lanetan. Oraingoz, behin.behineko kontratua izango du. /A.G.

Ekainaren 15ean hasiko da bainurako denboraldia gure hondartzetan. Horren harira, batzuek diote nahiko garbi daudela hondartzak; beste batzuek, ordea, itsasoa ez dagoela bainatzeko moduan. Arrasate irratian Ekologistak Martxan taldeko kide Itziar Mielgorekin egin du berba horretaz guztiaz Aitziber Aranburuzabalak, eta elkarrizketa hori jaso dugu hemen.

AINTZANE IRIZAR



GOIENKARIA

# *Itziar Mielgo*

EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA

# "Udan hondartzara ez joatea gomendatzen diegu herritarrei talde ekologistok"

'PRESTIGE' ITSASONTZIA

**"*Prestige* itsasontziak, oraindik ere, egunean bi tona fuel itsasora isurtzen segitzen du, eta Euskal Herrira fuel orban berriak iristen ari dira"**

ADMINISTRAZIOAREN JARRERA

**"Administrazioaren arduragabekeria salatu dugu, jendeari hondartzetan sartzea ez ekiditeagatik; haren lana da jendea informatzea, ohartaraztea eta hondartzak ixtea"**

**Azkenaldian, denetik entzuten gabiltza. Iturri batzuen arabera, ekainaren 15erako egoera onean egongo dira hondartzak; beste batzuek, ordea, bestelako iritzia duzue.**

Azken baten, kontuan hartu behar dugu *Prestige* itsasontziak, oraindik ere, egunean bi tona fuel itsasora isurtzen segitzen duela. Horrekin lotuta, Euskal Herrira fuel orban berriak iristen ari direla salatu berri dugu.

Administrazioak, berriz, hondartzetara iristen ari diren orbanak itsasoaren indarrarekin haitzetatik askatu diren fuel orbanak direla esaten du. Hori, baina, ez da horrela, orbanak ikustea nahikoa da orban horiek berriak direla ohartzeko. Joan zen aste bukaeran, esate baterako, Bizkai parean fuel arrasto handi bat iristen ari zela ikusten zen. Hortaz, oraindik ere fuel berria iristen ari da, eta horixe bera da oraingo astean Donostian gertatu dena, fuel berria iritsi dela, alegia. Jendeari, hortaz, esango genioke hondartzak zikinak daudela eta ekainaren 15erako ere ez direla garbi egongo. Gainera, nahiz eta ez ikusi, hondarretan fuela dago, oso partikula txikietan, kasu askotan, baina egon badago.

**Nahiz eta orban txikiak izan, astelehenean mila bat kilo batu zituzten Donostian, ezta?**

Bai; iristen ari diren orban gehienak txikiak dira, baina tamaina handiko orbanak ere ikusi ditugu. Gipuzkoan, Jaizkibel parean, adibidez, fuelez betetako material asko aurkitu dugu, noraezean. Eusko Jaurlaritzak egindako txostenaren arabera, haitzetan zipriztinak bakarrik geratzen dira. Hori ez da egia. Deban, esate baterako, Elorriagako haitz eremuan, fuel asko dago. Donostia aldean, esan bezala, mila kilotik gora agertu dira oraingo astean bertan. Gure iritziz, eta tamalez, egoera oso txarra da.

Alberto Rodríguez Donostiako Udaleko hondartzetako arduradunak esan du hiriburuko hondartzak irekita egongo direla uda osoan barrena, baina, batzuetan, eremu batzuk itxi egin beharko dituztela, fuela iristen denean. Gure iritziz, fuela iristen ari bada, jendea ezin da hondartzetara sartu. Astelehenean, adibidez, istripua gertatu zen Donostian; hondartza garbitzen ziharduen makina batek inguruan zebilen neskatila bat harrapatu zuen. Gure galdera honakoa da: zer egiten zuen neskatila hark hondartzan, garbiketa lanak egiten zihardutela?

**Maiatzaren 17an eta 18an, kostalde osoa ikusten eta aztertzen jardun zenuten hainbat ekologista taldek. Uste baino zikinkeria handiagoa topatu zenuten, ezta?**

Bai; esan bezala, orban berriak ailegatzen ari dira, Gipuzkoa eta Bizkai osoan ikusi ditugu orban txikiak. Era berean, fuelari eusteko barrerak ez erabili izana salatu dugu.

Bestalde, aipatzekoa da Urdaibaiko eta Barbadungo hezeguneetan, itsasbeheran, fuel orbanak aurkitu direla; horietako batzuk zaharrak ziren, baina berriak ere aurkitu dituzte. Oraingo aste bukaeran hainbat zulo egin ditugu, fuela ze sakoneratan dagoen ikusteko; Laga eta Ibarrangelua aldean 40 bat zentimetroko sakoneran aurkitu dugu fuela. Galizian, esate baterako, metro eta erdiko sakoneran aurkitu dute. Gure egoera, jakina, hobea da, baina administrazioak esaten duena ez dator bat errealitatearekin.

Dena dela, sakonera handiagoan ere topatu dugu petrolioa; batu ez zen fuela izerditzen joan da, eta orain, tenperatura igo egin denez, fuela iragazten ari da itsasbeherako lerro paretik. Horren ondorioz, Barrikan eta Orion, esate baterako, metro beteko sakoneran aurkitu dugu fuela.

**Zeuk esan duzun moduan, administrazioaren esanetan, egoera bestelakoa da, eta bainu denboraldia hasterako, garbi egongo dira hondartzak.**

Bai; gainera, etengabe ari dira hondartzen gainean berba egiten; izan ere, euren helburua da udarako hondartzak garbi egotea. Baina, hondartzez gainera, haitzen eremuak zelan dauden ere ezin dugu ahaztu. Eremu horietan sare eta soka asko utzi ditu itsasoak fuelez beteta, eta fuel hori askatzen ari da. Aste Santuan garbiketaren gaia aztertzeko Galizian egon ginen, eta ikusi dugunaren arabera, orain erabiltzen ari diren hidrogarbigailuak ez dira batere egokiak. Tresna horiekin haitzetara indar izugarriarekin botatzen dute ura, eta haitzetan bizi diren izaki bizidun guztiak hiltzen dituzte. Hori, hortaz, ez da metodo eraginkorrena. Horrekin batera, berriro salatu nahi nuke administrazioaren jokaera arduragabea, jendeari hondartzetan sartzea ez ekiditeagatik. Joan den aste bukaeran, esate baterako, garbitzaileek lanean ziharduten bitartean, bi metro eskasera jendea eguzkia hartzen zegoen. Hori sekulako arduragabekeria da, baita jendearen aldetik ere.

**Eta zer ondorio izan ditzake fuel horrek pertsonongan, gure osasunarengan?**

Fuel hori oso toxikoa da. Egun hauetan arrantzaleek behin eta berriz esan dute oso arrain gutxi dagoela. Hori zergatik da? Fuelaren eraginez, zooplanktona eta fitoplanktona, arrainen elikagaiak diren mikrobio horiek, desagertu egin direlako. Eta nahiz eta elikagai horiek egon, fuela baldin badute, arrainek fuel hori jaten dute. Bestalde, oraindik aztertzear dago Galizian zein egoeratan egin zituzten garbiketa lanak. Askok material egoki barik egin zuten lan, neurririk hartu barik, eta horren ondorioak hogei bat urte barru ikusiko ditugu.

**Argi dago kontuz ibili behar dugula. Baina hondartzetan inolako oharrik ikusten ez badugu, zelan jakin dezakegu sar gaitezkeen ala ez?**

Gure gomendioa hondartzara ez joatea da. Administrazioak ezin ditu hondartzak itxi, turismoa erakartzeko beharrezkoak direlako. Fuel asko iristen zen garaian ere, nahiz eta komunikabideetan esan ezin zela bainurik eta ezin zela hondartzetan sartu, jendea sartu egiten zen eta administrazioak ez zuen hori ekidin.

Kontua da, momentuan bertan gaixotzen ez zarenez, jendeak ez diola garrantzi handirik ematen, ez du arriskurik ikusten. Eta hori administrazioaren lana da: jendea informatzea, ohartaraztea eta hondartzak ixtea.

**Ekologista taldeek bandera beltzak jarriko dituzue. Zer esan nahi du bandera horrek eta non jartzeko asmoa duzue?**

Bandera beltzarena hainbat talde ekologistak urtero egiten dugun kanpaina bat da; administrazioak bandera urdinen berri ematen duelako urtero. Orain *Prestige* itsasontziarekin gertatutakoa eta horren ondorio guztiak alde batera lagata, bestela ere hondartzen egoera eta urarena ez dira egokienak izaten.

Bandera beltza jarri edo ez erabakitzeko ura ikertzen dugu, hondarraren garbitasuna, eta abar, eta hainbat baldintza eta ezaugarriren arabera hartzen dugu erabakia. Emaitzak txarrak badira, bandera beltza jartzen dugu hondartzan. Aurten ere ikusiko dugu, baina, seguruenik, bandera urdinak jarriko dituzte Euskal Herriko hainbat hondartzatan. Azken baten, bandera urdinen kanpaina hori turismoari begira egiten du administrazioak.

# Zabalik



JON ANDUEZA

## Lapiko usaina

**Gure ibarrean alderdi espainolistek 6.835 boto jaso dituzte. Frankoren garaitik baldintza okerrenetan jokatu duten ezker abertzaleko plataformek, berriz, 8.140. Baina espainolistek 16 zinegotzi edukiko dituzte gure zortzi herrietan, eta plataforma abertzaleek bat bera ere ez.**

**Pena ematen dit gaur Euskal Herriak. Hauek dira iberiar inperio sakro-santuak guretzat asmatu dituen arau demokratikoak? Ba doazela Quintanilla de Onesimoko astoak perratzera bai inperioa eta bai demokrazia ere!**

**Asko dira egoera berri honen aurrean irabazten irten direnak. Adibidez Aralar. Eta Ezker Batua. Baina batez ere EAJ-EA. Azken bi alderdi hauek Debagoienean zortzitik zazpi alkatetza eskuratu dituzte. Ia-ia bingo! Hauteskundeak lege onez antolatu izan balira ederto: zorionak, animo eta aurrera. Ez da horrela izan, ordea. Bozketa putxerazo lotsagarria izan da. Eta oso larria izango litzateke errealitate garratz horri uko egitea.**

**Zorterik onena opa diet gure herriak gobernatuko dituzten zazpi alkate horiei, hartuko dituzten erabakiak zuzenak badira guztion mesederako izango delako. Baina kontuz. Hasteko eta behin erabakirik garrantzitsuena hartu beharko dute: plataformen legez kanporatzeari esker gehiegi puztutako emaitzak aprobetxatuz norabide bakarreko politika egingo duten ala ez. Deskuiduan hala egiten badute eskualdeko 8.140 herrikideri bizkarra emango diete, antidemokrazia inposatuz. Hanka sartze grabea, oso grabea.**

**Sistema justuren bat behar dugu hauteskunde hauetan sufritu dugun estafa berriro gerta ez dadin. Nunca mais.**

**Portzierto, bailarako zortzigarren herria Gatzaga da. Han kolore ezberdinetako herritarrekin osatutako euskal kandidatura zabal eta independentea sortu zuten aspaldi. Aupa Gatzaga. Agian hortxe daukagu etorkizunerako formula magikoa?**

# Gutunak

Iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## Espainiaren legalitatea eta herritarren borondatea

Hauteskunde hauek, herritarren borondatea eta Espainiaren legalitatea ezarri dute bata bestearen aurrean. Hau izango da hemen datorren garaiko gatazkaren muina. Errealitatearen irakurketan gauzatu da lehenengo borroka. Igande gauean Euskal Telebista ikusterakoan eduki nuen lehenengo harridura. EHUko soziologoa den Iturriotz irakasleak egindako aldarrikapenak salbu, espazio komunikatibo osoan Autodeterminazioaren Bilgunea ia ez zen agertzen. Astelehen goizean, berriz, Euskal Telebistako gaztelerazko katean berdin-berdina gertatu zen. Deustuko irakasle ospetsua den Ruiz de Olabuenagari hauteskundeei buruz egindako elkarrizketaren bukaeran soilik aipatu zuten AuB, 80.000 bozka inguru zituela esateko gainera.

Kazetak begiratuz, *Egunero* eta *Gara* egunkariek herritarren borondatea komunikatu digute; aldi berean, espainiar legalitateak inposatutako irakurketa eta funtzionamendu politikoa ezarriz. Beste gehiengo mediatikoa, ia soilik espainiar legalitateak inposatutako irakurketa igorri digu. GOIENKARIA ere, nahiz eta herritarren borondatea aipatu, lehenengo honi ematen dio lehentasuna. Eta azkeneko hau da mina egin diguna.

Zer dela-eta, bertako herritarren ahaleginarekin eta bertako herritarren ekimenen ondorioz, partehartzea eta denon interesak adierazteko sortutako GOIENKARIA aldizkariak bigarren lerroan ezartzen digu herritarren borondatearen errealitatea?. Apartheid-a dagoen gizarte batean horrek kezkatzen gaitu. Banaka batzuek ezin dutelako, hainbat eta hainbat herritarrek interes sozialei begira egindako proiektua, beste interesen alde ezarri.

ANTXON MENDIZABAL
(EHU-KO IRAKASLEA)
Arrasate

## Zorionak GOIENKARIAri

Zorionak eman nahi dizkiot GOIENKARIA egiten duen taldeari, hauteskunde biharamuneko aleagatik. Nire ustez zenbaki hura izan zen egun hartan Euskal Herrian kaleratu zen egunkaririk onena. Eta ez nabil exajeratzen.

Azalak berak aukera ematen zuen, begi kolpe batez, jakiteko ibarrean zer gertatu zen bezperan: herriz herri nortzuk ziren alkate hautatuak eta nola geratu ziren udalbatzar berriak. Baita zenbat boto atera zituzten herri plataformek, nahiz eta legez kanpo geratu ziren.

Beste inork ez bezala, ibarra bera egin zuen subjektu GOIENKARIAk hirugarren orrialdean. Eta, hortik aurrera, herriz herriko gorabeherak argazki, grafiko, konparazio eta adierazpenekin. Hori guztia osatua zenbait analisirekin, ibarreko hainbat kazetarik idatzita Euskal Herriaren gainean. Eta egunari zegozkion argazkiak. Eta abar.

Bakoitzak bere mailan, GOIENKARIAk beste inork baino hobeto bete zituen egun hartan egin beharrekoak. Izan zen egunkari argia eta bikain antolatua, ikusgarria, mamitsua eta arina aldi berean, orekatua eta argazki onez hornitua. Izan zen, onena.

Horren atzean sekulako lana zegoen, batez ere aurrelana, Eneko Azkaratek eta Goio Aranak zuzentzen duten taldearena, gero bozketa egunean bi orduan burutu zena.

Debagoiena harro egon daiteke horrelako taldea eta horrelako egunkaria edukita. Jende honek goien gradura jaso du kazetaritza ibarrean. Zorionak!

JOXE ARANZABAL
Elorrio

## Aralarren korapiloa

Erraza da pilota besteei pasatzea. Pasa den astean, hauteskundeen bozketa eguna baino pare bat egun lehenago, GOITB telebista ikusten ari nintzela, Ainhoa Larrañagaren —Aralarreko zerrendaburuaren— hitzak entzun nituen.

Bere esanetan, eta galdera bati erantzunez, Aralarrek ez omen du korapiloaren muturrean egon nahi. Hori horrela, kazetariaren hurrengo galderak zera zioen, gutxi gorabehera: "Bergara Aurrera taldearen botoekin zer egingo du Aralarrek? Zer egingo du tokatu dakiokeen zinegotzi horiekin?".

Ainhoaren erantzuna: "Oraindik ez dugu erabakirik hartu, hala ere, badaude beste talde batzuk guk baino erantzukizun handiagoa dutenak".

Kontxo!, bai koherenteak direla Ainhoaren hitzak, argi eta garbi ikusten baita korapiloaren muturrean egoterik nahi ez dutela.

Eta nik, honetaz guztiaz, zera galdetzen dut: Aralarrek ez al du iritzirik? Beste baten menpe al dago? Zergatik ez zuen erantzun, besteari (EAJri) pilota pasatu beharrean? Horren nekeza al da norberaren kontzientziaren muturra non dagoen jakitea? Argi dago Aralar ez dagoela korapiloaren muturrean eta, beraz, jarrera zehaztugabe horrekin nekez asko askatuko du korapiloa.

Azkenik, datu gisa, irakur dezagun Ainhoa Larrañagak hauteskunde ostean, asteleheneko GOIENKARIAn dioena: "Pozik gaude. Lortutako lau zinegotziek gure nortasuna bermatzen dute".

Norena da laugarren zinegotzi hori? Zinegotzi hori ez al dute aukeratu muturrean dauden herriko 1.884 biztanlek?

B.A.S. (15.353.119)
Bergara

## ETBren egoitza nagusiak Bilbon ez du zentzurik

Euskal gizarteak denboraldi bat badarama ETBren egoitza Bilbora eraman nahi dutena entzuten, 2005-2006 urterako alegia. Zuzendaritzaren asmoak eta epeak iragarri bezala ez betetzen ohituak bagau-

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



de ere, batez ere egoitzen plan ospetsuaren inguruan, Euskal Telebista eta EITBren egoitza nagusia Bilbora lehenbailehen eramateko asmoa sendoa da, eta Langile Batzordeak argudiatzen duenez, ez du zentzurik.

Inolako logikarik ez duen gako batekin hasiko gara: horren tamainako gastu bat egiteko, are gehiago dirua herriarena izanik, aldez aurretik egitasmo edo beharren plan bat ezinbestekoa da, baina egun, leku aldaketa iragarri eta urtebete igaro eta gero, oraindik ez dago osatuta. Bestalde Andoni Ortuzar zuzendari nagusiak bere garaian ere hainbat argudio eman zituen prentsaz zein langileen ordezkariei, batzuk okerrak eta beste batzuk, besterik gabe, gezur hutsak:

Bat, informazioa azkarrago landu ahal izango dela, informazio gehienak Bilbon sortzen direlako: 2002 urtea aztertuz, Bilbon aritzeko eskatutako erreportaje talde kopurua batez beste %23a izan zen, baina ETB Bilbon egotekotan datu hori ziur asko igoko zen, noski, beste herri eta hirien kaltetan. Gainera, egoitza Bilbora eraman ezkero denborak laburtu baino luzatu egingo ziren, hain ezagunak diren trafiko arazoak dituen hiritik atera eta sartzeak suposatzen duen denbora galerari herrietan sortzen diren informazioetara iristea gehitu behar zaiolako. ETB Iurreta den EAEko erdigune geografikoan jartzearen arrazoiek oraindik zentzua dute, eta aipatu behar da Miramonerako aurreikusita zegoen plana bertan behera gelditu dela, eta petatxo soil batzuetan geldituko omen da.

Bi, Iurretan zabalketa bat egitea ezin eta garestiegia: Kontraesana bada ere, bi argudio horiek erabili ditu zuzendaritzak. Hasieran Iurretako Udalak baimenik ez zuela ematen zioten, baina gezurretan harrapatu ondoren, inguruko lurren jabeak hauek garestiegi saltzen zituela asmatu zuten. Iurretako Udalak 1993an ETBk gero aurrera eraman ez zuen zabalketa eskaera bat onartzearren ordenantzak aldatu ere egin zituen, eta harez geroztik ez zaio beste eskaerarik egin. Eta inguruko lur garestien jabea nor eta Eusko Jaurlaritza bera da, ekimen bereziak soilik aurrera eraman daitezkeen lurrak alegia.

Hiru, digitalizazioa eta toki falta: Jakina, erronka berriei aurre egiteko telebista digitalizatu egin behar da, baina horretarako ez dugu Bilboraino joan behar, daukaguna osatzea baizik. Iurretatik alde egitekotan hainbat azpiegitura, dagoeneko digitalak ditugunak, bikoiztu egin beharko ziren gastua ikaragarri puztuz, eta lehen esan bezala, oraingo eraikina zabal daiteke.

Honi guztiari langile gehienei (%67a) ematen zaien kaltea eta horrek suposatzen duen ordaina gehitu behar zaio. Hala egitekotan bidaia denborak eta gastuak gehitu behar ditugu, bataz beste 48 lanegun eta 1900 ordu urtean, langile bakoitzeko.

Gero, ulertzen edo ezagutzen ez dugun beste kontu bat badago. Bilboko erakustazokara joateko EITBk 13 mila metro koadro eskatu baditu, zergatik bikoitza emango zaien jakin nahi genuke. Eta, bestalde, Iurretako egoitzarekin zer gertatuko den ere ez da aipatu ere egin, zeintzuk diren lur eremu hauendako asmoak.

Horrelako erabakia hartzeko argudio teknikorik ez dugu aurkitzen, beraz, eta Andoni Ortuzarrek iazko apirilean onartu bezala, ETB Bilbora eramatearen erabakia politikoa izan da, eta orain erabaki horri forma "teknikoa" ematen saiatu beharko dute EAEko biztanleon diruaren alferrikako gastua justifikatzearren.

ETB-KO LANGILE BATZORDEA
Iurreta

## Aberriaren nahas-masaren gainean gogoeta

Jakina da abertzale askoren jomuga kultura dela, euskal kultura eta identitatea. Batzuendako euskara erlijio bat bezala baita, oso maitagarria den espiritua. Joko honetan zer dugu gaur egun?: Konstituzioaren lege linguistikoak eta, are gehiago, kulturaren xumekeria. Konstituzioak dio behartuta gaudela gaztelera jakitera, eta euskara eskubide dela. Zergatik ez dira pareko jartzen?: euskara eskubide eta erdara ere eskubide, bata edo bestea jakitera behartu beharrean. Lege honek dakarren gudu psikologikoa etengabea da eta euskara herrenka darama.

Bestalde, kulturaren xumekeria nioen, eta honek alde biko txanpona du orain, gure aberria dagokiona eta aje unibertsala zio. Telebista, diskoa, irratia eta kasetea, azken mende erdian kultura xumekeria bihurtu dute. Light, bihotz gabeko kultura makinista, biziozko kultura nahas masa, gailuok erosteko tentaldi etengabea, giro artifizialak gizarte lokaletan, txokoetan, kastarik gabeko eragile psikologikoak, isiltasun eta herri giroaren aurkariak.

Unibertsala, nioen bezala, baina areagotua gure aberriari dagokionez, Espainian kate inperialistak baitira hedabideen ajean. Horrela euskaldunari etengabe bonbardatzen zaio gaztelerarekin gailuotatik, hizkuntza milenarioa bigarren mailan jarriz. Bizio eta tentaldia kulturaren xumekeri. Aberriaren nahas masa. Gu, tentel? Beti legez, kanpora begira, Parisko ikasle matxinoak izan behar ote dira gailuon aurkako iraultzaileak? Hemen betiko txanponaren bi aldeak ditugu.

Gizarte mediatikoan gogortasunkeria armatu independentista ez da kokagune, abertzaleen batasuna behinen baita. Bestalde, gogortasun iraultzailea libertinaje elektronikoa jokoz kanpo uzteko erabakia guregan atzean etorriko da. Gailuok debekatzeko, irmotasuna hartuko dugunean. Jaungoikoaren aurka ote doa munduko gizateriaren bizio hots-elektronikoa etetea? Soilik arautua lan munduaren beharretara. Xume-xume, keriarik gabe etorriko da.

JON OTERO URIBARREN
Fontcalent (Alacant)

### Antxon Mendizabalen gutunaren gainean

Asteleheneko GOIENKARIAn, "espainiar legalitateak" inposatutako datuak eta baliogabetutako plataformenak jaso genituen. Denak. Era berean, udalbatza "ofizialak" eta baliogabetutako plataformak kontuan hartuta, osatuko liratekeen udalbatzak nola geratuko liratekeen ere jaso genuen. Beraz, alderdi eta plataforma guztiek jasotako botoen berri eman genuen.

Erabakiak hartzerakoan, irakurleria zabalaren sentsibilitateak, ibarreko errealitate soziologiko anitza eta interes informatiboa izaten ditugu kontuan, besteak beste. Hori da gure irizpidea, batzuetan asmatu eta beste batzuetan oker egin arren. Asteleheneko GOIENKARIArekin asmatu genuen edo ez irakurleek esango dute. Alde horretatik, guztiz errespetagarria iruditzen zaigu Antxon Mendizabalen iritzia.

GOIENKARIA, Debagoieneko herritar guztien partehartzea eta denen interesak adierazteko sortu zen. Sorrerako irizpideei eusten die gaur egun ere.

GOIENKARIA

# *Hemeroteka*

## Neurriaren bila hauteskundeetan

Ez dago jakiterik maiatz honetan EAJ-EA koalizioak lortu dituen emaitza onen artean aurreko autonomikoetan ezker abertzaleari hartu zizkion botoak egongo ote diren, baina —partaidetza kopuruak jaitsi direla kontuan izanik— badirudi, neurri batean edo bestean, hala izan dela, eta horrek boto horren egonkortze bat erakusten du.

AuB Plataformari buruz hitz egiten hasi baino lehenago, ezingo dugu aukera galdu beronen debekuak dakarren bidegabekeria salatzeko eta, orobat, elkartasun zintzoena adierazteko, batez ere gose-grebari lotzeraino iritsi den hautagai horiei.

Kanpaina egiteko izan dituen eragozpenak begien bistan jarrita, inork ez du ukatuko 153.497 boto baliogabeek duten garrantzia, burdina goriaz landu den estigma hori boto baliagarrien gainetik gailendu baita. Gertakari sinestezina, benetan. Ezker abertzalearen barruan dagoen sendotasuna erakusten du. Erdigune zaurtezina erakusten du ezker abertzalearen barruan.

Halere, egoerak egoera, ezker abertzale ortodoxoak 122.621 boto galdu ditu 1999an —ETAren su-etenaren gerizetara— bere goia markatu zuten aurreko udal eta foru hauteskundeetatik. Aitzitik, EAEko hauteskunde autonomikoetatik hona apenas galdu dituen 10.869 boto.

Ezker abertzale ortodoxoak dituen ihesbideak, ordea, zertxobait gehiago nabarmendu dira. Aralarrek 36.172 boto lortu ditu, haietatik gehienak EHkoak izandakoak. Nafarroan, esaterako, Aralarrek AuB plataformak baino 4.811 boto gehiago lortu ditu. Pentsatzekoa da, bestalde, 1999ko autonomikoetan EAJ-EA koalizioak eskuratu zituen botoetatik batzuk ere galdu dituela ezker abertzaleak, AuB eta Aralar elkarturik, oraindik 60.405 boto falta baitira ezker abertzalearen gain hura ukitzeko. Horietatik batzuk, noski, abstentziora eta EBra joango ziren, baina ez guztiak.

Ezin jakingo da epe ertainean zer gertatuko den boto horiekin. Ezin jakingo da Aralar sendoagotuko ote den egituraketa-bideak luzaturik eta, batez ere, politikan presentzia izatearekin. Baina, badirudi, Zabaletaren karismaz harantzago, ezker abertzale ortodoxoaren estrategiak ez dituela asebete herritar abertzaleak; are gutxiago Nafarroan.

(...)

ANDER ITURRIOTZ (EHU-KO IRAKASLEA)
'Egunero'. 2003-05-29

**HURRENGO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

# *Herrietako plataformek parte hartu beharko lukete udalbatzarretan?*

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**ZUZENDARIA**
Eneko Azkarate
**ERREDAKZIO KONTSEILUA**
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

**ADMINISTRAZIOA**
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
**SAILETAKO ARDURADUNAK**
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

**PUBLIZITATEA**
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**PRODUKZIOA**
Iban Arantzabal

**TESTUEN ZUZENKETA**
Sergio Azkarate
**HARPIDETZA ETA BANAKETA**
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**LEHENDAKARIA**
Estepan Plazaola
**ZUZENDARI NAGUSIA**
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Podiuma

# Uxue Arregi | GIMNASTA |

**Gimnasia erritmikoa kirol gogorra dela diote. Eta antzuolarrak gogotsu dabiltza. Izan ere, Gipuzkoako Txapelketan aurreko postuetan sailkatu dira: Iraitz Gasteain laugarren izan da, Maialen Toledo bigarren eta Uxue Arregi, berriz, txapeldun.**



I.A.

Uxue Arregi bigarren urtez jarraian izan da Gipuzkoako txapeldun.

**Antzuolan badirudi maila ona dagoela gimnasia erritmikoan.**

Iazkoa eta aurtengoa oso urte onak izan dira guretako. Ordu asko ematen ditugu astean entrenatzen, eta egindako lanaren emaitza jaso dugu orain.

**Zelan hasi zinen, bada, kirol honetan?**

Telebistan ikusita, beti izan dut gustuko gimnasia erritmikoa. Gainera, txikitan malgutasun nahikoa nuela ikusita, kirol honetan hasteko aukera eskaini zidaten eta ordutik gaur arte jardun dut. Dena dela, hasieran ez genuen lehiaketetan parte hartzen, erakustaldiak besterik ez genituen egiten. Orain dela bost urte inguru hasi ginen lehiatzen.

**Aurrez ere izan zara Gipuzkoako txapeldun. Hasi zinenean pentsatu zenuen horretara iritsiko zinela?**

Lehiaketetara ahal dudana erakustera joaten naiz, ez irabaztera. Gipuzkoako Txapelketa ondo atera zait eta hainbestean badut pozik egoteko arrazoirik. Azken urte hauetan, gainera, seriotasun handiagoarekin hartu dut gimnasia erritmikoa, eta horrek ere izan du eraginik emaitzetan.

> **"Niretako, aparatu zailenak mazoak dira. Behin, batek jo egin zidan, eta ordutik hona beldur pixka bat hartu diet"**

> **"Malgutasunaz gain, moketan indarra eta ganora erakutsi behar ditu gimnasta on batek"**

**Euskadiko Txapelketan ere egon zara, ezta?**

Bai. Iaz hirugarren sailkatu nintzen, baina lesionatuta joan eta ez nintzen gustura geratu.

**Gimnasia erritmikoa kirol gogorra dela diote.**

Zerbait lortu nahi bada, ordu asko sartu behar dira entrenatzen. Badira gu baino denbora luzeagoa ematen dutenak.

**Zein modalitatetan jarduten duzu gusturen?**

Zintarekin eta uztaiarekin dihardut. Zinta aurten probatu dut, eta gustatu egin zait. Zailenak mazoak dira: bi aparatu direnez, airera botatzean biak kontrolatu behar dira. Behin, mazo batekin kolpea hartu nuen, eta ordutik hona beldur pixka bat hartu diet.

**Zein ezaugarri behar ditu gimnasta on batek?**

Malgutasunaz gain, indarra beharrezkoa da. Ez indar fisikoa bakarrik, norberak gogoa jarri behar du egiten ari den horretan. Moketan ganora erakutsi behar du gimnasta onak.

**Elikadura zaindu behar duzue?**

Entrenatzaileak goxoki askorik ez jateko esaten digu, baina ni ez naiz askorik zaintzen. Gimnasta ona izateko ez da erabat argal egon behar.

**Arropa bereziak erabiltzen dituzue. Asko erreparatzen diozu janzkerari?**

Aparatu bakoitzerako elastiko bat erabiltzen dugu. Batzuetan guk diseinatzen ditugu eta gero jostun batek egiten dizkigu. Bestalde, lentejuelak josi behar dira, eta horrek ematen digu lan handien.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## GOIENKARIA SARIA

**Aste bukaerako emaitzak:** Aloña Mendi 5 - Mundarro 2 / Bergara 4 - Aretxabaleta 2 / Beti Gazte 4 - Mondra 1

### ASTEKO JOKALARI ONENAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Josu Zubia | (Mondra) | 3 puntu |
| 2. | Oskar Maiztegi | (Bergara) | 2 puntu |
| 3. | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 1 puntu |



1 **Josu Zubia** Mondra



2 **Oskar Maiztegi** Bergara



3 **Xabi Camino** Aloña Mendi

**Josu Zubia**
Mondraren aurtengo zutabeeetako bat.

**Oskar Maiztegi**
Denboraldia amaitzeko modu ezin hobea, Oskar!

**Xabi Camino**
Xabirena ere, aipatzeko modukoa! Beste bi gol!

### SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 20 puntu |
| 2. | Gorka San Vicente | (Bergara) | 16 puntu |
| 3. | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 14 puntu |
| 4. | Eric García | (Aretxabaleta) | 10 puntu |
| 5. | Josu Zubikarai | (Bergara) | 10 puntu |



1 **Jon Muruamendiaraz** Mondra



2 **Gorka San Vicente** Bergara



3 **Xabi Camino** Aloña Mendi



4 **Eric García** Aretxabaleta



5 **Josu Zubikarai** Bergara

Goienkaria

## Kirolabur



### BERGARA/PILOTA

Bergara Hiria Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren martitzenean Bergarako Udal Pilotalekuan. Harmailetan egon ziren 600 pilotazaleek joko bikainaz gozatu ahal izan zuten. Urrizelkik eta Retegik 22-12 irabazi zioten Azagirre bergarararrak eta Esnaolak osatutako bikoteari, 22 urtetik beherakoen finalean. Senior mailan, berriz, Eguzkitza eta Erauskin izan ziren nagusi, Martinez de Irujori eta Okiñenari 22-16 irabazita.

### ESGRIMA/ARRASATE

Goi Eskola Politeknikoko Kirol Zerbitzuak esgrima ikastaroa antolatu du. Partaideek esgrimaren teknikak, armak, historia, arauak eta taktikak ikasiko dituzte, besteak beste. Ekainaren 3tik 24ra bitartean, martitzenero bi orduko saioak egingo dituzte eta taldea gehienez 12 lagunek osatuko dute. Debarroko biztanleek eta Mondragon Unibertsitateko ikasleek 40 euro ordaindu behar dituzte eta gainerakoek, 45 euro.

### FUTBOLA/ARETXABALETA

Almen Ikastolako Infantil mailako Torrebaso futbol taldeak Gipuzkoako txapeldun izatea lortu zuen Herreran jokatutako finalean. Aralar Intxurreren aurkako norgehiagoka penaltietan erabaki behar izan zuten, partidua banakoarekin amaitu zen-eta. Bestalde, dagoeneko hasiak dira Euskadiko Txapelketako azken txanpan ere jokatu dute, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako taldeen aurka.

### PILOTA/ANTZUOLA

Aritz Berraondo Kepa Peñagarikanoren aurkako partidua 9-22 galdu eta bigarren mailako txapeldunordea da. Kepa Peñagarikanok zuzenean lortu du lehen mailara igotzea; Berraondok, berriz, beste aukera bat izango du mailaz igotzeko: Xabier Imaz izango du aurkari antzuolarrak. Partidua datorren astelehenean, ekainaren 2an, jokatuko da Tolosan.



### KIROL KAZETARITZA/ARETXABALETA

Herri Irratiko Iñaki de Mujikak eta *La Movida Deportiva* saioko lantaldeak Aretxabaletako Baster-Alde jatetxetik zuzenean egin zuten irratsaioa. Gonbidatuen artean ibarreko kirolariak egon ziren: Markel Irizar, Jon Odriozola, Mikel Etxabe, Jose Jabier Barkero eta Aitor Lopez Rekarte. Baita Alberto Garai kirol medikua ere.

# Kirol txartel bateratua 5.106 aldiz erabili da

## Otsailetik apirilera bitarteko datuak eman dituzte aditzera

**Urtarrilean jarri zuten abian ibarreko kirol zerbitzuek txartel bateratua erabiltzeko egitasmoa. Ordutik hona Debagoieneko 1.411 herritarrek daukate txartela, eta, azken neurketen arabera, otsailetik apirilera bitartean 5.106 bider erabili da txartela.**

Kirol zerbitzuetako arduradunek ibarreko kirolariek euren herrikoak ez diren ez den Debagoieneko beste herri bateko kirol instalazioak erabiltzean egiten dute neurketa, eta hiru hilabetean txartel bateratua 5.106 aldiz erabili dela jakinarazi dute.

Kirol etxe erabilienak Arrasatekoa eta Oñatikoa dira datu horien arabera. Baina kontuan hartu behar da herriko bertako kirolariak sartzen direnean ez dituztela kontatzen.

Kirolari gehienek urtea hastearekin batera eskuratu zuten txartela, eta uda gerturatzean ere jendea animatzen dela esan digute kirol zerbitzuetako arduradunek.

Horren adibide da zelan egin duen gora txartel bateratuen kopuruak. Otsailean 946 ziren eta orain, berriz, 1.411.

Hasieran 1.000 txartelera iristea ametsa zela pentsatu zuten, eta jendearen erantzun ona ikusita oso gustura daude ibarreko udaletako kirol teknikariak. Aurreikuspen guztiak gainditu dituzte eta ideia ona zela berretsi dute modu horretan.

2003-2-1—2003-4-30

TXARTEL MANKOMUNATUAREN ERABILERAK

| | ARETXABALETARA | ARRASATERA | BERGARARA | ESKORIATZARA | OÑATIRA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ATXABALTARRAK | | 371 | 0 | 207 | 97 | 675 |
| ARRASATEARRAK | 558 | | 0 | 577 | 405 | 1.540 |
| BERGARARRAK | 78 | 1.352 | | 41 | 883 | 2.354 |
| ESKORIATZARRAK | 81 | 128 | 0 | | 43 | 252 |
| OÑATIARRAK | 49 | 155 | 0 | 37 | | 241 |
| GUZTIRA | 766 | 2.006 | 44 | 862 | 1.428 | 5.106 |
| | 15,0% | 39,3% | 0,9% | 16,9% | 28,0% | |

Arrasateko eta Oñatiko kiroldegietan erabili da gehien kirol txartel bateratua.

## KIROL ZERBITZUEN BERRIAK

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua





## Añai erretegia

**Nardeaga 32 / ARAMAIO**
**945 44 51 01**

**Eskaintza**
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

**Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

**Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik**






## Baster-Alde

**Galartza auzoa / ARETXABALETA**
**943 79 24 58**

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Bikoitz jatetxea

**Garibai auzoa 17 / OÑATI**
**943 78 24 83**

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Gosariak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Menu bereziak zapatu eguerdietan

**Domeketan eta jai egunetan itxita**
**Zapatuetan:** 11:00-16:00 eta 20:00etatik itxi arte



## Pildain jatetxea

**Udala auzoa 14 / ARRASATE**
**943 79 11 65 / 943 77 18 40**

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

**Berezitasunak**
- Bildotsa laban erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia




## Taberna-Berri jatetxea

**Durana 24-26 / ARETXABALETA**
**943 79 20 67 / 943 79 49 41**
*tabernaberri@terra.es*

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Torrekua jatetxea

**Ibargarai 37 / BERGARA**
**943 76 50 99**

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak




## Unzueta jatetxea

**Zabola auzoa / ARAMAIO**
**945 44 50 95**

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

**Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
**943 78 35 45**

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandetan itxita**

# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 30a

Kultura eta aisialdia

Maiatzaren 30etik ekainaren 6ra


### Kristo aurreko Txinatik gaurko mundura horrenbeste eztabaida sortzen duen

# KALAMUA

### landare maitea da ibarrean ere: haziak dendan erosi eta lorontzian landa ditzakegu

G*row-shop* bat dago zabalik orain dela urte eta erdi ezkero Debagoienean. Arrasaten dago eta gure inguruko mota horretako denda bakarra da. Egia esan, *grow-shop* izenak aditzera eman lezakeena baino askoz sinpleagoa da denda horren izaera: lorezaintza eta hazi-salmenta lekua da. Letxugak, hortentsiak, piperrak… Nork bere baratzetxoan lantzeko hainbat motatako haziak saltzen ditu bertan Aitor Artzuaga mondragoetarrak. Horiek guztiak landatzeko tresnak eta lur egokia ere badaude aukeran denda horretan. Hala ere, ez da hori denda horren gainean ikusmina pizten duena.

Aitorrek irribarre batekin erantzuten du dendan ezer berezirik saltzen ote duen galdetzen diotenean. Hazi berezi hori kalamu edo *cannabis* landarearen hazia da, eta bai, badago Arrasateko lorezaintza denda horretan erosteko aukera. Horrek ematen dio *grow-shop* izenaren merezimendua, hain zuzen ere. Aitorren iritziz, jende gehienak mitifikatua du kalamu edo *cannabis* landarea eta bertatik lor daitezkeen sustantziak: "Kalamua beste edozein landare bezalakoa da. Ez du inongo berezitasunik. Etxeko balkoiko lorontzian jar daiteke, polita geratzen delako, beharbada; eta, loratu ondoren, gura duenak landare horren printzipio aktiboak kontsumi ditzake bere gorputzean erreakzio jakin bat lortzeko; baina hori berdin-berdin egin daiteke kalamuarekin zein beste landare batzuekin".

Azalpen horiek, ordea, ez dituzte guztiek bere egiten, eta *cannabis* landareari ez dio batere laguntzen historian zehar hain landare estimatua izanak –Txinan, lehen aldiz, medikuntza testu baten kalamua goi mailako landareen artean aipatzen zuten, Kristo aurreko 3727an– bere inguruko polemika itzaltzeko. Ez historiak, ez eta kalamuaren legalizazioaren aldekoek erabiltzen dituzten argumentuek ere: gutxi batzuk aipatzearren, diote kalamuditik ateratako sustantziak –haxixa, marihuana…– medikuntzan, zenbait aplikaziotan, oso komenigarriak direla; edo, bere neurrian hartuta, droga horiek sozialki eta juridikoki onartuak dauden beste droga batzuk baino kaltegarriagoak, behintzat, ez direla.

Debagoienean, beste leku askotan moduan, kalamuaren gaineko ikuspegi bikoitz hori da nagusi. Alde batetik, ibarrean, jendeak, batez ere gazteek, geroago eta naturaltasun handiagoz hartzen dute kalamuaren erabilpena. Baina, bestetik, kalamuak ilegala izaten jarraitzen du. /15 LEIRE KORTABARRIA



GOIO ARANA







RENAULT Kontzesionarioa
**AUTOBERRI**
San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472
ARRASATE

GIZARTEA/ DEBAGOIENEAN ERE BADAGO 'GROW-SHOP' EDO KALAMU DENDA BAT

# Kalamua, oraindik ere arrotz

KALAMU HAZIAK SALTZEA EZ DU LEGEAK JAZARTZEN. ARRASATEN DAGO MOTA HORRETAKO DEBAGOIENEKO DENDA BAKARRA

LEIRE KORTABARRIA

**THC: sigla horiek bereizten dute *Cannabis sativa* beste landare gehienetatik. Berba kriptiko horren azpian kalamu landarearen printzipio psikoaktiboa ezkutatzen da, haxixean edo marihuanan dagoena. THC saltzea edo erostea debekatuta dago: ez, ordea, landarea bera haztea.**

Kontraesanez inguratuta segitzen du *cannabis* landarearen eta horretatik ekoitz daitezkeen produktuen sozializazioak. Sozializazio hori, zentzu praktikoan, egi bihurtu zen orain dela urte asko: gero eta onartuago eta hedatuago dago haren erabilera; kalamua zer den eta zein eragin dituen hobeto dakigu orain… eta norberak kontsumitzeko laborantza ez da ilegala Estatuan.

Kalamua kristautasun aurretik da ezaguna eta erabilia, baina lege debeku hori behin betiko ezabatzeko, ordea, XX. mendera arte itxaron behar izan du Europak. Estatuan, zehazki, 1996an egin zen kalamuaren laborantza despenalizatzeko lehen epaia.



AMAGOIA LASAGABASTER

San Kanuto Egunean –urtarrilak 19– kalamuaren legalizazioa eskatzeko jaia antolatzen du Aretxabaletako talde batek.

**LOREZAINARENDAKO BAKARRIK**

Ordutik hona, norberak kontsumitzeko egiten den artean, kalamua landatzea letxugak landatzea bezain legala da. Garrantzitsua da hemen *norberak* berba; izan ere, haxixa edo marihuana landatzaileak berak ez beste inork kontsumitzea bakarrik onartzen du legeak; ez, ordea, horiek saltzea, ez eta opari egitea edo beste batzuekin konpartitzea ere.

Edozelan ere, Debagoienean, beste leku askotan moduan, kalamua betidanik kontsumitu izan da, baina gero eta jende gehiagok, hura erosteko zituen arazoak zirela-eta, euren haziak erosi eta landarea zaintzea erabaki dute. Horren adibide asko daude.

**"OSO LANDARE ARRUNTA DA"**

Aitor Artzuaga mondragoetarrak eman zuen Debagoieneko lehen *grow-shop*-a zabaltzeko urratsa: "Inguruko herrietatik ere jende asko etortzen da, bai", diosku. Batez ere jende gaztea izaten dela gaineratzen du. Uste hedatuena izan daitekeenaren kontra, zera diosku Aitorrek: "Jendea hemen badago kalamua ikustera eta salerosketarekin bizi izatera ohituta; gertatzen dena da dendaren hutsunea zegoela".

Arrasateko dendan kalamuaren eta beste edozein landareren zainketarako tresnak, lur motak, ongarriak… daude aukeran. Eta katalogoz hainbat produktu sofistikatuago eskatzeko aukera izango dute erosleek. Horrez gainera, lorezaintzaren misterioak argitzen oso trebeak ez direnek ere badute zer edo zer egiteko modua, Aitorri kasu egiten badiogu: "Ilargiaren faseen arabera hazten dela, zainketa bereziak behar dituela… entzun izan da, baina ez da horrela. Egia esatearren, oso landare arrunta da".

Aitor Artzuaga dendariaren nahia da "kalamuaren salerosketa gauza normala izatea", eta bere denda beste edozein denda bezala kontsidera dadila. Horrez gainera, beste edozein merkatarik bezala, etorkizunean zerbitzua hobetu gura du, produktu gehiago eskainiaz: arropa, osagarriak, eta abar.

**LORAZAINTZA ETA JAIA**

Ibarrean, ordea, balkoietan orain gero eta sarriago ikusten ditugun kalamu landareak ez dira gauza berria, nahiz eta orain, akaso, gero eta erraztasun handiagoa dagoen horiek edukitzeko.

Etxeko balkoiko lorontzi batekin nahikoa ez, eta hedadura handiagoa behar izan dutenen kasua badago: Debagoienean badago mendi aldean kalamu orturik daukanik.

Ez hori bakarrik: txantxa, alaitasuna eta aldarrikapena bat eginaz, San Kanuto jaia ospatzen du, urtarrilaren 19an, Aretxabaletako lagun talde batek, eta kalamuaren normalizazioa eta legalizazioa eskatzen dute.

## Debekua, maila moralean

**Klandestinitatearekin, marjinaltasunarekin… lotzen segitzen du oraindik haxixaren eta marihuanaren kontsumoa gizartearen zati handi batek. Aitor Artzuaga Arrasateko *grow-shop*-eko jabeak bereizketa hori "ilogikotzat" jotzen du: "Debekua maila moralean kokatzen da: bestela, zergatik da legala alkohola, esaterako, eta ez kalamua? Egunero, osasunari kalte izugarria egiten dioten milaka sustantzia legalen artean ibiltzen gara. Eta kalamua ona da gaixotasun larri askoren tratamenduaren barne. Ulergaitza egiten zait debeku hori. Gainera, debekuaren eraginez sortzen den merkatu beltza droga baino askoz txarragoa eta arriskutsuagoa da. Zergatik ez utzi jendeak bere haziak landa ditzan eta askoz produktu osasuntsuagoa lor dezan?".**

**Dendariak urrutiago jotzen du: "Gakoa da ezin dugula gauzak normaltasunez bizi. Pertsona bat zelakoa den erabakitzeko, gizarteak ez du kontuan hartzen pertsona horrek zelan jokatzen duen, baizik eta zein sustantzia kontsumitzen duen. Hortaz, THC edo beste sustantzia ilegalen bat hartzen baduzu, automatikoki, pertsona txarra eta arriskutsua zara. Horrek ez du ez hanka ez bururik".**

## Euskarazko lehen landaketa liburua

Kalamua norberak landatzea: hori da askok landare horretatik atera daitezkeen haxix eta marihuana lortzeko ikusten duten modu bakarra. Aukera hori gero eta hedatuago dago ibarrean ere.

Kalamuak loratzean ematen duen sustantzian dago zer den legal eta zer ez denaren gakoa. THC printzipio aktibo horren salerosketa debekatuta dago, baina, loratzen ez den artean, kalamua beste edozein landare bezala sal edo eros daiteke, baita haren haziak ere. Norberaren kontsumorako laborantza ez dago debekatua 1996a ezkero: urte hartan egin zuten, Espainian, ekintza horren lehen absoluzio epaia.




"Landaketak ez du aparteko misteriorik: landare mota bat da, eta zainketa eskatzen du, besterik ez", diosku Aitor Artzuagak. Zainketa hori azaltzeko, *Cannabis: landaketa eskuliburua* argitaratu zuen Kataluniako ARSEC elkarteak 1999an. Inoiz euskaraz argitaratutako kalamuaren laborantzaren inguruko lehen liburua dugu.

## Salerosketa normalizatu

*Grow-shop* delakoen fenomenoa ez da berria Euskal Herrian, baina oraindik bide luzea dute egiteko: hala diosku Debagoieneko halako denda bakarraren jabe Aitor Artzuagak. Hura Eusko-Grows merkataritza elkarte bateko kide da: "Gure helburua da kalamu salerosketa normalizatzea, zentzu guztietan. Kalamutik produktu asko atera daitezke, eta eskaera gero eta altuagoa da", azaltzen du Aitorrek. Kalamua ez da haxix edo marihuanan agortzen: arropa, adibidez, egin daiteke hostoekin; bestalde, horrelako denda handiagoetan kalamuaren aldeko korronte horrekin zerikusia duten arropak eta osagarriak ere saltzen dituzte.

Estatuan, Katalunian daude hedatuen *grow-shop*-ak; gurean bide luzea dute egiteko.

# Mai. 30–Eka. 6

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## MUSIKA

### ANTZUOLA

► ***Pub ibiltaria* musika emanaldia** egingo du Oskorri taldeak etzi, domeka, pilotalekuan, 21:00etan.

### ARETXABALETA

► **Julia Leonek** XV. eta XVI. mendeetako poesia eta musika emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 20:00etan.

### ARRASATE

► **More Time taldeak (Gasteiz)** emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Anboto tabernan, 22:30ean.

► **Zoe pop-rock taldearen emanaldia** egongo da gaur, egubakoitza, Al-Andalusen egoitzan, 00:00etan.

► **Bertso saioa** egingo dute Igor Elortza, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze eta Jon Maia bertsolariek bihar, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean.

### BERGARA

► **The Briefs taldeak (Seattle)** *Of the charts* azken lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Astrozombies (Buenavista) taldeak ere joko du kontzertu berean.

► **Evan Dando**ren emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **La broma de Ssatán** taldearen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Rockzilla (Girona) eta Los Padrinos (Gasteiz)** taldeek *Evil ways* eta *Al límite* azken diskoak aurkeztuko dituzte bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Su ta Gar** taldeak *Itsasoz beteriko mugetan* disko berria aurkeztuko du datorren egubakoitzean, ekainak 6, Jam aretoan, 22:00etan. Ehiztari Beltza taldeak ere egingo du emanaldia.

► **Luar Na Lubre** galiziar folk taldearen emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, ekainak 6, udal pilotalekuan, 22:30ean.

► **Niños Mutantes, Painful, Fevers eta Dixie 900** taldeen kontzertua egongo da datorren egubakoitzean, ekainak 6, Bideberrin, 00:00etan.

► **Disko Festa** musika jaialdia girotuko du Joseina Etxeberria disko jartzaileak datorren egubakoitzean, ekainak 6, San Martin plazan, 00:00etan.

### ELGETA

► **Sei urte, Black sheeps eta Urgabe** taldeen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Let's Zep** taldearen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

### OÑATI

► **La Polla, Kañeria 13, Banda Munizipala eta Golpe de Estado** taldeen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Errekalde auzoko plazan, 22:00etan.

► **Bertso saioa** egingo dute Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazu bertsolariek etzi, domeka, Errekalden, 19:30ean.

### PLAZENTZIA

► ***El señor de los anillos*** filmeko soinu-bandaren inguruko emanaldia egingo dute Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Xamatz dantza taldeak bihar, zapatua, kiroldegian, 22:00etan. Sarrerak Ariznoan daude salgai.

## ANTZERKIA

### ESKORIATZA

► **Tim eta Cas ipuin kontalarien** emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:30ean. Helduei zuzendutako ekitaldia da.

### OÑATI

► ***Egun baten historia* bertso musika eta poesia saioa** egongo da gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Ikar-Hezi ikastetxeak antolatutako ekintza dugu.

► ***Gloria* ipuin musikatua** antzeztuko dute etzi, domeka, Santa Ana aretoan, 18:00etan, XXV. Musikegunak programaren barne. Gloria Fuertes-en ipuin batean oinarritutako lana da.

## DEIAK

### ARRASATE

► **Mendi Astearen barne,** hainbat diapositiba emanaldi egongo dira ekainaren 2tik 6ra, egunero, Monterron jauregian, 19:00etan.

### BERGARA

► ***Europan zehar dirurik gabe bidaiatzeko sekretuak*** hitzaldia egongo da gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

► ***La generación del exilio: historia y memoria del éxodo infantil vasco, 1936.1939*** hitzaldia egingo du Jesus Javier Alonso Carballés historialariak ekainaren 3an, martitzena, Migel Altuna Institutuan, 19:30ean.

► **Arantzadi Ikastolak ohiko batzar nagusia** egingo du ekainaren 4an, eguaztena, UNEDeko areto nagusian, 18:00etan eta 18:30ean.

### DEBAGOIENA

► **UEUko (Udako Euskal Unibertsitatea)** ikastaroetarako izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 29ra arte. Hilaren 14tik aurrera matrikula %15 garestiagoa izango da. Udalek dirulaguntzak ematen dituzte baldintza jakin batzuetan matrikulatzen direnendako.

### ELGETA

► **Josune Bereziartu eskalatzaileak** diapositiba emanaldia egingo du ekainaren 5ean, eguena. *Eskaladak eta paisaiak Estatu Batuetako kostaldean* da emanaldiaren izena. Liburutegian izango da, 19:30ean.

### ESKORIATZA

► ***La homosexualidad* hitzaldia** egingo du Inmaculada Muxikak ekainaren 3an, martitzena, kultura etxean, 18:30ean.

► **Zamorara txangoa** antolatu du Amuska emakume taldeak ekainaren 14an eta 15ean.

### OÑATI

► ***Nire gurasoek zer gertatzen zaidan ez badute ikusten, ez dut ikasiko irakurtzen eta idazten* hitzaldia** egingo du Marije Urangak






► KONTZERTUAK

### HARD-ONS TALDEAREN EUSKAL HERRIKO SAIO BAKARRA, GUREAN

Australian egiten den punk-rock musikaren eredu bikaina da Hard-Ons taldea. Eszena horretako mitikoa da, gainera: 1982an, Blackie liderrak Sex Pistols taldearen emanaldi bat ikusi eta txundituta geratu zen, eta bizitzan zer egin nahi zuen garbi agertu zitzaion. Harrez geroztik, hamabi disko kaleratu dituzte, eta beti bezain gogotsu jarduten dute agertokian. Australia eguzkitsutik Europara etorriko dira *Very Exciting* euren azken lana aurkeztera, eta Bergaran eskainiko dute Euskal Herriko kontzertu bakarra, herriko gaztetxekoen eskutik. Sarrerak salgai daude dagoeneko Bergarako Pol-Pol eta Etxagi tabernetan, Jam aretoan eta gaztetxean; eta gainerako herrietan, ohiko salmenta lekuetan.

**Non:** Bergarako gaztetxean. **Noiz:** ekainak 5, eguena. **Ordua:** 21:30. **Sarrerak:** 6 euro, Bergaran; 8, beste herrietan.



## AL-ANDALUS ELKARTEAREN KULTURA ASTEA

Bihar eta etzi izango dira Arrasateko Al-Andalus elkartearen XIV. Kultura Asteko azken egunak. Bihar, zapatua, 18:30ean musika emanaldiak egongo dira eta 21:00etan, afaria; eta etzi, domeka, sari banaketa eta askaria egingo dituzte. Zigorrolako euren egoitzan izango dira ekintzok.

ekainaren 4an, eguaztena, Txantxiku ikastolako areto nagusian, 18:30ean.
► **Uztaileko Udaleku Irekietarako begiralea** behar du Udalak. Horretarako, jo lehenbailehen gaztelekura.

## JAIAK

### BERGARA

► **Mendekoste jaiak** hasiko dira datorren egubakoitzean, ekainak 6. 20:00etan musika emanaldia eta txosnen irekiera egongo dira; eta 22:30ean musika emanaldiak.

### ESKORIATZA

► **Eskoriatzako VII. Ferixa** antolatu du Arizmendi Ikastolak ekainaren 7an, zapatua. Herri bazkaria egongo da, eta izena emateko azken eguna ekainaren 3a duzue. Txartelak erosteko, deitu ikastolara (943 71 44 86) edo jo Adeli, Mirentxu edo Urrestilla tabernetara.

### OÑATI

► **Errekalde auzoko jaiak** ospatuko dituzte gaurtik etzira bitartean. Janari dastatzea, kontzertuak, kirolak, mus txapelketak… egongo dira auzoko plazan.

## BIDEOA

### OÑATI

► **Gore, fantasiazko eta beldurrezko zinema zikloaren barne,** *It's alive* eta *Dune* filmen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 23:30ean. Los Bingueros Performance taldearen ikuskizuna ere egongo da.

## IKASTAROAK

### ARETXABALETA

► **Nagusiendako dantza ikastaroa** antolatu du Leizarra musika eskolak. Interesa dutenek bertan egin dezatela izenematea.

### BERGARA

► **Larrua lantzen ikasteko** ikastaroa antolatu dute. Larrua lantzeko materiala norberak eraman beharko du. Argibideetarako deitu 659 02 11 98 zenbakira.

## LEHIAKETAK

### ARETXABALETA

► **Andramaixetako** Kartel Lehiaketa deitu du Udalak. *Andramaixak 2003, abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a, Aretxabaleta* da derrigorrezko testua, eta ekainaren 23a da mugaeguna.

# Zinema

### ARRASATE

■ **ALAI ZINEMA**

***En la oscuridad***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***Bloody Sunday***
Eguena, zine kluba: 21:30.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***El libro de la selva 2***
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

### OÑATI

■ **OÑATIKO ZINEA**

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Fantasía***
Domeka: 17:00.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Matrix reloaded***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

■ **RIALTO**

***Marie-Jo y sus dos amores***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik martitzenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Matrix reloaded***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Eres mi héroe***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Polígono sur***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Esto no es un atraco***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***X-Men 2***
Egubakoitza: 17:00, 19:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***Bully***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***Relaciones confidenciales***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Taxi 3***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Ken park***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Matrix reloaded***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***X-Men 2***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***En un lugar de África***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Frida***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Ted Bundy***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***No tengo miedo***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Torremolinos 73***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

***Born romantic***
Egunero: 17:00, 22:30.

***La barbería***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***A lo grande***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***En algún lugar de África***
Egunero: 17:00, 19:45, 22:30.

***La herencia***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***La pesadilla de Susi***
Egunero: 19:45.

***La vida mancha***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

■ **STER ZINEMAK**

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 20:05, 22:05.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza: 18:30, 20:45, 23:00, 01:15.
Zapatua: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00, 01:15.
Domeka: 16:15, 18:30, 20:45, 23:00.

***La prueba***
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30, 00:50.
Domeka: 20:10, 22:30.

***Matrix reloaded***
Egubakoitza: 18:00, 18:45, 21:00, 21:30, 00:15.
Zapatua: 16:00, 18:00, 18:45, 21:00, 21:30, 00:15.
Domeka: 16:00, 18:00, 18:45, 21:00, 21:30.

***Al filo de la muerte***
Egubakoitza: 18:10, 20:15, 22:25, 00:30.
Zapatua: 16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:30.
Domeka: 16:05, 18:10, 20:15, 22:25.

***Esto no es un atraco***
Egubakoitza: 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Zapatua: 16:25, 18:25, 20:20, 22:15, 00:10.
Domeka: 16:25, 18:25, 20:20, 22:15.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:10.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:15.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:15.

***Lilo & Stitch***
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:20.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX**

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Relaciones confidenciales***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Eres mi héroe***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:20, 20:20, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:20, 20:20, 22:25.

***Posesión infernal***
Egubakoitza eta zapatua: 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 20:40, 22:40.

***Taxi 3***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Condenado***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:15, 00:45.
Domeka: 12:15, 17:00, 19:30, 22:15.

***En el filo de las olas***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***El vientre de Julieta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Al filo de la muerte***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

***Sin motivo aparente***
Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:00, 18:30.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:00, 18:30.

***El último golpe (Heist)***
Egubakoitza eta zapatua: 22:10, 00:20.
Domeka: 22:10.

***Sucedió en Manhattan***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:10.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:10.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***0La última noche: ●●● / El último golpe (Heist): ●● /***

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### AMARCORD

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**ZUZENDARIA:** Federico Fellini.
**AKTOREAK:** Bruno Zanin, Magali Nöel, Pupella Maggio.

Joandako asteburuan, *Matrix Reloaded*-ek Euskadiko hiriburuetako pantaila gehienak hartzea lortu zuenean, Donostiako zinema bakarrean *Amarcord*, Federico Felliniren lan onenen artean dagoen filma, berrestreinatu zen. Horrek 30 urte bete baditu ere, oraindik lehen eguneko magia, xarma eta oroimenerako ahalmen guztiari eusten dio.

Fellinik betidanik fantasiari, amets egiteko gaitasunari eta irudimenari garrantzi handia eman izan dizkio. Zuzendari horren iritziz, ezaugarri horiek gizakiaren deskribapena egiteko momentuan, ezaugarri arrazionalak bezain garrantzitsuak dira. Errealitatea eta fantasia ezin bananduzko berbak dira. Hori guztia argi eta garbi ikusten da *Amarcord*-en. Filma Felliniren haurtzaroaren oroitzapen (buruak gertatutakoaren egiten duen deformazio eta idealizazioarekin) antzeko bat da.

*Amarcord* garai bateko erretratua da. Filmak pasarte edo koadro bitartez funtzionatzen du: udaberriko sua, eskola, familia, urtaroen aldaketa, itsasontzia, heriotza, herriko istorio xelebreak, eta abar. Horrek guztiak, modu idealizatu, magiko, samur, dibertigarri eta hunkigarrian erabilita, 30eko hamarkadako Italia herrikoiaren erretratua osatzen du. Pertsonaia bakoitzaren zehaztasun guztiak daude marraztuta: arropek, makillajeak, orrazkerek eta denbora luzeko edo laburreko agerraldiek pertsonaien izaera ondo baino hobeto adierazten dute (herriko neska ederra *ofiziala*, abokatua, abadeak, irakasleak, umeak, akordeoi jotzaile itsua, tabako dendako saltzailea, familiako kideak, faxistak, eta abar). Osagai horiei koloreak erabiltzeko modua, dekoratuak eta Nino Rotaren musika liluragarria gehitzen badizkiegu, karikaturarekin, garai bateko trazu gehitzearekin eta irudimenaren indar magikoarekin jokatuz, garai horretako jendearen, pentsamoldearen eta esentziaren erretratu egoki eta identifikagarria lortzen duen lana daukagu.




Fellinik osagai eskatologikoak, umorea, malenkonia eta samurtasuna erabili ditu, eta edertasun eta ahalmen hordigarriz beteriko filma sortu du.

ANTONIO ZABALA

SARE İNMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- 98 $m^2$, 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 $m^2$. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 $m^2$. Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.
- 69 $m^2$. Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa.Eguzkitsua.150.253,02 euro (25.000.000 pta)

**BERGARA**
- 70 $m^2$. Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
- 75 $m^2$. Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka. 161.071,24 euro (26.800.000 pta).

**ERRENTAN**

**Ikasleendako hainbat etxebizitza ematen dira errentan**

**ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.**



KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: $m^2$ ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Arane erreka. 87 $m^2$ erabilgarri. Trastelekua. Oso ondo dago.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 $m^2$ x 3 solairu, 38.000 $m^2$-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegi, Osintxu, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloa, Elosu, Zegama, Asteasu.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**



**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**


Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako deiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 76 92 71**
**sailkatuak@goiena.com**


MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

Ondasun-ekipoen sektorean lan egin eta Gipuzkoan kokatua dagoen MCCko enpresa garrantzitsu batek, honakoa behar du:

**TROKELEN MUNTATZAILE TEKNIKOA**

**Euskal Herrian hainbat lantoki, nazioartean ezarpen handia eta maila handiko inbertsioak dituzten proiektuetan parte hartzen duen, Ondasun-Ekipoen ekoizle garrantzitsu batek eskaintzen du lanpostua.**

**Baldintzak**
- Ingeniari Teknikoak, FPII edo Goi mailako prestakuntza modulu mekanikoa.
- Trokelen muntaje eta doiketan esperientzia handia (5-6 urte).
- Ingelesez jakitea.
- Bidaiatzeko prestutasuna.
- Euskaraz jakitea kontuan hartuko da.

**Eskaintzen dena**
- Kontratazio baldintza interesgarriak.

Interesatuta zaudetenak bidali kurrikuluma helbide honetara:
18 Posta -kutxatila 20.500 -ARRASATE. Gipuzkoa-
Gutun-azalean 36.2/03 Erref. jarri.
30 egunen buruan aurre-hautatuei bakarrik erantzungo diegu.



ARRASATE
**ESPERIENTZIADUN ILE APAINTZAILEAK BEHAR DIRA LASTER ZABALDUKO DEN ILE APAINDEGI BATEN LAN EGITEKO.**
**676 22 33 18**



EZKONTZAK
**EZKONTZA ELIZKIZUNETAN PIANOA JO ETA ABESTU EGITEN DUGU (SOPRANOA).**
**657 72 96 32**



**LAN EGIN GURA DUZU?**

**TOLOSA eta HONDARRIBIA.** Hamar plaza Udaltzaingorako. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz. 943 444 509

**SUHILTZAILEAK.** Deialdiak laster. Egizu lan Euskal Herriko parkeetan. Lan baldintza bikainak. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**BASOZAINA.** Egizu lan Euskal Herriko parke eta natura-erreserbetan. Eskatzen da: eskola-graduatua edukitzea. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**GARRAIOLARIA**. Lor ezazu trebakuntza-titulua, garraiolari profesional izan zaitezen. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**JUSTIZIA MINISTERITZA.** Euskal Herri osorako eskaintza publikoa. 42 laguntzaile, 10 agente, eta 23 justizia ofizial. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**AIRE-KONTROLATZAILEAK.** 250 lanpostu atera ditu AENAk. Eskakizuna: diplomaduna edo lizentziaduna izatea eta ingeleseko maila ertaina edukitzea. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**AUTOESKOLAKO IRAKASLEA.** Trafikok deialdiak egingo ditu laster. Lan baldintza ezin hobeak. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**LIBURUTEGI LAGUNTZAILEA.** Udaletan, unibertsitateetan, artxiboetan... lan egiteko. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509

**ADMINISTRARIA.** Teknikoak eta laguntzaileak. Deialdiak laster, udaletan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Presta zaitez. Adoz-ek informatzen du. 943 444 509



ARETXABALETA
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**


# 1/ ETXEBIZITZAK

### 102. EROSI

**Arrasate.** Etxebizitza txiki edo atiko bila nabil. 605 76 08 29.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan erdialdean, Levante hondartzaren ondoan. Igerilekua eta garaje pribatua dauzka. Hamabostaldietarako ere har daiteke errentan. 945 21 34 70.

**Benidorm.** Bi etxebizitza ematen ditut errentan, ekainetik irailera bitartean. Guztiz hornituta. Erdialdean. Igerilekua eta garajea. 966 81 26 48 edo 689 85 24 40.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan abuztuan. Hondartzatik gertu dago. 666 67 06 94.

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan. Gela bi. Itsasoari begira. 630 41 84 65.

**Lizarra.** Nafarroako herri eder horretatik gertu, Azkonan, XVII. mendeko etxea har dezakezu errentan. Aste bukaerarako, aste osorako edo hamabost egunerako. Oso etxe polita. Errustikoa eta eraberritua. 605 77 02 08 edo 943 42 74 49.


ARRASATE
**NESKA BAT BEHAR DA DENDA BATEN LAN EGITEKO.**
**620 26 77 54**



UBERA
**UBERAKO JAOLATZA ELKARTEAN GARBITZAILEA BEHAR DA.**
**636 25 87 26 (MERTXE)**



ARETXABALETA
**ZERBITZARIA BEHAR DA.**
**943 79 16 68**


**Peñiscola.** Etxebizitza ematen da errentan uztailean. Hondartza ertzean dago eta igerilekua eta parkinga ditu. 943 79 48 82.

**Santa Pola (Alacant).** Bungalowa ematen da errentan abuztuan. Hondartzatik gertu. 636 12 57 00.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru neskak etxebizitza errentan hartuko genuke datorren ikasturtean. Maitane. 680 37 45 72.

**Arrasate.** Lau ikaslek etxebizitza errentan hartuko lukete irailetik aurrera, ahal dela lau gelakoa eta unibertsitatetik gertu. 652 72 80 23.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 943 45 30 67.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bila nabil eta beste norbaitekin bizi izateko gertu nago. 639 06 73 28.

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan. 656 76 89 44.

# 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai Martokon. 20m2. 943 76 13 56.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garajea ematen dut errentan Olarte kalean. 687 39 46 56.

# 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 77 13 62.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Jostuna arropak konpontzeko gertu. Mabel. 635 73 20 36.

**Arrasate.** Umeak edo edadetuak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke, orduka. 639 06 73 28.

**Bergara.** Emakume batek arratsaldez lan egingo luke. 635 73 86 50.

**Bergara.** Neska gaztea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Arduratsua. Ingelesez daki. Lorena. 677 64 82 30.

**Debagoiena.** 38 urteko emakumea gertu jangelan zerbitzari lanak egiteko. 667 85 15 10.

# 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 76 51 23 edo 616 12 56 29.

# 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Ford** Focus 1600 Trend autoa salgai. Beltza. 100 zaldi. Gasolinazkoa. 1999ko azaroan erosia. 34.000 kilometro. Unai. 943 76 35 72.

**Ford** Transit furgoneta salgai. 123.000 Km. Leihoduna. 678 95 02 20.

**Volkswagen** Transporter furgoneta salgai. 1995ekoa. 635 74 10 04.

**Yamaha** Aerox Checa motoa salgai. 5.000 Km. Mikel. 629 11 30 04.

# 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Labrador** arrazako hilabeteko txakurkumeak salgai. 656 72 45 60.

# 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Habia-ohea** salgai. 95 cm. Berri-berria. 943 76 15 76.




CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

| | |
|---|---|
| Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia | Antonio Estomba |
| Menopausia | Fernando Cristóbal |
| Endoskopia ginekologikoa | Alfredo Otalora |
| Laguntza bidezko ugalketa | Jose M. Gómez |
| | Ainhoa Larrea |
| Titietako gaixotasunak | Domingo Murgiondo |
| Obstetrizia | Miguel Gabarain |
| Psikosexualitatea | Maria José Ruiz |
| Nerabezaroko ginekologia | Fatima Azkue |
| Hezur dentsitometria | J. Rodríguez |

**Arrasateko kontsultategia:**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

## AIPAGARRI

### Juan Luis Lizarralde

ARRASATE



Hego Euskal Herriko erretiratuen margo lehiaketa irabazi du Juan Luisek. Bi margolan bidali zituen lehiaketa horretara: artisau bat kaikuak egiten agertzen zen horietako margolan baten; bestean, berriz, Udala auzoko paisaia bat. Azkeneko lan honi eman diote aipatutako saria.

### Iñaki Arana

BERGARA



Lanbide zaharren eta bertako hizkeraren gaineko liburu bilduma osatzen dihardu Bergarako Udalak. Datorren asteko eguenean, ekainak 5, bilduma horretako liburu berri bat aurkeztuko dute, Iñaki Aranaren *Burnia: errementariak eta perratzaileak* liburua, hain zuzen ere.

### Felix Aiala

ARRASATE



Bergarako zezenzaleek antolatzen duten Abdon Juaristi pintura lehiaketan, Felix Aiala arrasatearraren lana aukeratu dute, berari eman diote lehen saria. Horrek esan nahi du Pazkoetan egingo diren zezenketen kartel iragarle moduan erabiliko dutela Aialaren koadroa.

GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 75 €.

**ESKER ONA**

Jose
Rodriguez Mazo



**Arrasate**n hil zen
2003ko maiatzaren 26an,
69 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**

Jose
Alberdi Arrese-Igor



**Bergara**n hil zen
2003ko maiatzaren 22an,
72 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

**URTEURRENA**

Sabin
Bolinaga Urkiola



Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 1ean,
11:00etan,
**Arrasate**ko San Frantzisko elizan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

**ESKER ONA**

Jesus
Rueda García



**Gasteiz**en hil zen
2003ko maiatzaren 21ean,
62 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Ibai eta Enaitz Elortza Gorostidi**
Arrasate • Maiatzaren 23a • 3,350 eta 2,750 Kg. Gurasoak: **Mikel** (Arrasate) eta **Susana** (Urnieta). Argazkian, bikiak gurasoekin.



**Naroa Agirre Larrañaga**
Arrasate • Maiatzaren 24a • 3,330 Kg. Gurasoak: **Josean Agirre** (Arrasate) eta **Lorea Larrañaga** (Arrasate). Argazkian, umea Unai anaiarekin.



**Alberto Zabaleta** eta **Espe Larzaguren** aurreko asteko egubakoitzean, maiatzaren 23an, bete zituzten 50 urte ezkonduta. Domekan, ekainaren 1ean, hain justu, ospatuko dituzte **urrezko ezteiak** familiarekin batera. Besarkada handi bat, bikote, eta **zorionak** familia osoaren partez!

ELKARTASUN BRIGADAK 2003

MEXIKO / KUBA

IZENA EMATEKO EPEA:
Maiatzaren 5etik ekainaren 6ra arte

- Bergara: 943 76 21 48
- Bilbo: 944 79 07 03 (Mailonako galtzadak 1)
- Donostia: 943 28 65 04 (Iruresoro plaza, Egia)
  Martitzen eta eguenetan 19:30etatik 21:30etara)

Komite Internazionalistak




*Elkartasunez mundu berri baten haziak jorratu*

## HITZGEZIDUNAK

Luma



| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Egokiak, aproposak / * Izena | | Lau / Handi | | Toka, nazazu |
| | | | | | | | |
| | | | Arrantza-gunea / Ostatu | | | | |
| Asperturik, nazkaturik / Soka | | Hortaz / Koadro | | | | | |
| | | | | | | | |
| Aldi, sasoi / Sobera | | | | | | Potasioa / Kontso. bustia | |
| | | | Kontsonantea / Egur zati erre | | Kontsonantea / Inkaren erdian | | Ogi txiki biribilak |
| * Deitura / Sailak | | | | | | | |
| | | | | | | Fosforoa / Oinazea | |
| Ut! / Gipuzkoako hiria | | | | | Musika nota / Zerga ezaguna | | |
| | | | | Infin., bildu / Urtearen erdian | | | |
| Iodoa / Denboraleak | | Garraio mota / Bokala | | | | | |
| | | | | | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**AUMATEGI TA APUTXIN**

Gure gizaldiaren lenenguetan, Casa del Pueblon batzarra zeukaten Eibarko sozialistak. Akilino Amuategi zan baztarraren zuzendarxa. Jende artian, an zeguan *Aputxin*, apur bat anarkistia zana. Amar bat puntu ziran tratatu biarrekoak. Bosgarrena amor libriari buruzkoa. Seigarrena zortzi orduko biarrarena. Laugarren puntua amaitxu zanian, Amuategik seigarrenera salto egin zeban. *Aputxin*, baiña, "Pido la palabra", diarka jaiki zan.

Amuategi goitxik:

- Zer nai dok *Aputxin?*

- Oiñ ori eztok tokatzen. Oiñ tokatzen dana dok Amor libria.

Amuategik:

- I eta ni garan zatarrekin, guregana, duan, zein emakume etorri leikek?

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Non ospatuko da aurten Araba Euskaraz?

Herri Urrats eta Ibilaldia, Iparraldeko eta Bizkaiko ikastolen jaiak, ospatu ditugu maiatzean. Bestalde, laster etorriko da Araba Euskaraz eta gero, urrian, Kilometroak eta Nafarroa Oinez. Arabako Errioxako herri baten ospatuko da aurten Araba Euskaraz, ekainaren 8an, herri horretako San Bizente Ikastolak antolatuta. Ikastola horretan hiru debagoiendar dabiltza lanean. Horietako bat, Mikel Arroiabe aretxabaletarra, GOIENKARIAko komikigilea. Baina asmatuko ote zenuke zein herritan ospatuko den aurten Araba Euskaraz jaia?

- Eltziegon
- Guardian (Biasteri)
- Oionen

**Erantzun zuzena:** Oionen.

## SOLUZIOAK





| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ● | A | ● | Z | ● |
| | | | J | U | L | E | N |
| | | | ● | K | A | L | A |
| ● | G | ● | B | E | R | A | Z |
| L | O | K | A | R | R | I | A |
| ● | G | A | R | A | I | ● | K |
| L | A | R | ● | K | ● | D | ● |
| ● | I | R | I | O | N | D | O |
| A | T | A | L | A | K | ● | P |
| ● | U | T | I | K | ● | M | I |
| I | R | U | N | ● | B | I | L |
| ● | I | ● | T | R | E | N | A |
| E | K | A | I | T | Z | A | K |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Jardunean dituzun proiektu guztiak sendotu egingo dira, eta horrek segurtasuna eta zeure buruarengan konfiantza emango dizu. Ondo sentituko zara. Bestalde, astean barrena bidaiaren bat egin zenezake, jeneralean denbora faltagatik egin ezin dezakezuna.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Trebea zara, limurtzeko gaitasun handia duzu eta komunikatzaile ezin hobea zara. Horik guztiak batuta, gura duzun guztia lortuko duzu. Arazoa zera da, nahiko alferra zarela, eta horren ondorioz lanean aurrera egiteko aukera polita gal zenezake.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Energiaz gainezka zaude, jarduera berriak abian jartzeko irrikan zaude eta oso kalkulatzailea eta zuhurra zara. Bada, horiek guztiak batuta, edozer lor zenezake.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Gaizki-ulertzeak sortuko dira, baina familiakoei esker –batez ere anai-arrebei esker– konpondu egingo dira. Bestalde, ohi baino sarriago irten beharko duzu herritik, bai lan kontuengatik, bai aisialdi hutsagatik. Azkenik, lanean egunean egoteko birziklapen ikastaroren bat egin beharko duzu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Zenbat eta zenbat gutizia erosten dituzu? Batez ere etxea jantzen gastatzen duzu dirua, diru asko. Horren ondorioz zure poltsikoak astindu ederra jasoko du. Bestalde, gogor lan egin beharko duzu, norbaitek etekin handia atera diezaioke-eta zure konfiantza eta utzikeriari.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Seme-alabekin arazo bat baino gehiago izango duzu, haiekin oso zorrotz jokatzen duzulako. Eztabaidek muga gainditu aurretik, egiozu galderatxo bat zeure buruari: eskatzen diezun guztia ez da gehiegitxo izango?

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Berri ezin hobeak lanean: mailaz igoko zaituzte eta, horrekin batera, soldata bere ere igoko dizute. Horren harira, gusturago egingo duzu lan.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Proposamen bat egingo dizute: lan egitera herritik kanpo joatea. Baina ez duzu onartuko. Eta lanik ez baduzu, berehala topatuko duzu zure neurrira egina dagoen bat. Bestalde, osasun arazoak izango dituzula-eta, ohean eman beharko dituzu egun batzuk.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Edozer lo dezakezu, den-dena manipulatzeko gaitasun handia duzu-eta. Bestalde, sex-appeal-a gori-gorian izango duzu, eta batek baino gehiagok sexu harremanak izatea proposatuko dizu. Horrek bikotekidearen haserrea sortuko du.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Zure inguruan gertatuko den zerbaitek erabat astinduko du daramazun bizimodua. Bestalde, proiektuak geldi daude; hortaz, hobe duzu atseden hartu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Baduzula lana? Ez duzula lanik? Berdin dio, hainbat lan proposamen egingo dizkizute-eta. Baina argi ibili behar duzu, proposamen guztiak ez dira-eta zintzoak izango. Osasunez ondo ibiliko zara, baina ez egin gehiegikeriarik.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Lagun berriak egingo dituzu: hasieran ez zara oso eroso sentituko haiekin, baina azkenean harreman polita sortuko da. Bestalde, hainbat proiektu hasiko dituzu, baina denak batera hasten badituzu ez duzu bat bera ere ondo egingo.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



## ‘Euskadiko Altuerak’
GOITB-N LASTER

### ‘Euskadiko Altuerak’ egitasmoan izango da GOITB

Jaurlaritzak, diputazioek eta hainbat turismo erakundek *Euskadiko Altuerak* izeneko egitasmoa abiarazi dute. GOITB, TVE eta A3 telebista kateek hartuko dute parte. Gorbeialdea, Zuiako Koadrila eta Goierrialdea ezagutuko ditugu.



## ‘Iparrorratza’
MARTITZENA/ **20:30**

### Kike de Pablorekin Txinara eta Turkiara joango gara

Kike de Pablo mendizalearekin Zetaren Ibilbidea egingo dugu. Hainbat herrialde bisitatzeko aukera eskainiko ditu Banoa bidaia agentziako abenturazaleak. Besteak beste, Txina eta Turkia bisitatuko ditugu.



## ‘Iluntzean’
ZAPATUA/ **15:00**

### Aste bukaeran, Iñaxio Oliveriri eginiko elkarrizketa

Aintzane Gardokik Mondragon Unibertsitateko errektore Iñaxio Oliveri elkarrizketatuko du *Iluntzean* saioan. Aste bukaeran izango duzue aukera elkarrizketa ikusteko. Eguenean beste gonbidatu bat egongo da *Iluntzean* saioan.



## ‘Soinuz blai’
EGUAZTENA/ **21:15**

### Musika doinuz blai, astero, Goiena Telebistan

Ugutz Usandizagak eta Maite Albesek aurkezten duten *Soinuz blai* saioan, ikusleak aukera du bideoklip bat norbaiti eskaintzeko, 943 71 23 93 telefonora deituta edo *goitbprogramazioa@goiena.com* helbidera idatzita.

## TELEBERRIAK

### ‘Eurovisión’, aurtengo ikasturtean telebistan gehien ikusi den saioa

Zapatuan, hilaren 24an, TVE1 kateak zuzenean eskaini zuen *Eurovisión* telebista saioa izan da ikusiena aurtengo ikasturtean. Espainiako Estatuko datuei erreparatuz gero, 10,6 milioi lagunek ikusi zuten. Edozelan ere, iazko *Eurovisión* lehiaketa baino jende gutxiagok ikusi zuen zapatukoa. Iazkoa 12,7 milioi lagunek ikusi zuten.

### Hauteskunde gaua: ETB2ko saioa, ikusiena

Hauteskunde gauean, telebista kate guztiek eskaini zituzten saio bereziak. Gurean ikusiena ETB2rena izan zen. Hain justu, telebista ikusten zeudenen artean, %24,4k jarraitu zituen hauteskunde emaitzak ETB2tik. Goiena Telebistak ere saio berezia eskaini zuen gau hartan: hiru ordu eta erdi, zuzenean. Eta hura ere jende askok jarraitu zuen. Ezin jakin, ordea, gurean gehien ikusi zen saioa izan zen edo ez, GOITBren audientzia daturik ez dugu-eta.

### ‘7 vidas’, txapeldun

Hauteskundeen gaineko saio bereziak oso ikusiak izan ziren arren, horra hor datu esanguratsua: T5eko umorezko saio *7 vidas* izan zen telebistako saio ikusiena Euskal Autonomia Erkidegoan. Batez beste, 219.000 lagunek ikusi zuten, hau da, telebista aurrean zeudenen %29,4k.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Maiatzaren 30etik ekainaren 5era

| EGUBAKOITZA 30 | ZAPATUA 31 | DOMEKA 1 | ASTELEHENA 2 | MARTITZENA 3 | EGUAZTENA 4 | EGUENA 5 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Soinuz Blai**<br>16:00 **Astebete**<br>16:30 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Soinuz Blai**<br>16:00 **Astebete**<br>16:30 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Harmailatik**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Harmailatik tertulia**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Harmailatik tertulia**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Harmailatik tertulia**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Iparrorratza**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta bera katza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Iparrorratza**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz Blai**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Alkatetzan Elgeta**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Alkatetzan Antzuola**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Alkatetzan Elgeta**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Alkatetzan Antzuola**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Alkatetzan Elgeta**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Alkatetzan Antzuola**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Iluntzean**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Sarrera doan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Iluntzean**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 21:00<br>**Astebete** | 14:30<br>**Sarrera doan** | 19:30<br>**Hauteskundeak 2003** | 21:15<br>**Harmailatik tertulia** | 20:00<br>**Berriak** | 20:30<br>**Alkatetzan** | 15:00<br>**Solasean berezia** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



***“Udal osoko bilkuran oposiziorik ez izatea ez da erosoa. Oposizioak eztabaida sortzen du eta hori ona da. Horregatik dut sentsazio gazigozoa”.***

**Mertxe Mondragon /** Aramaioko alkate berria
“ALKATETZAN” (2003-05-28)



***“Eusko Jaurlaritzan eta Arrasateko Udalean egindako lanak saria izan du. Herritarren ustez ondo egin dugu lan erakundeetan, eta konfiantza erakutsi digute”.***

**Joseba Ugalde /** EBko Arrasateko zerrendaburua
“BERRIAK” (2003-05-26)

## TELEBEGI/ Edorta Arana

### *Iragarkiak*

Txikitan, anai-arrebon arteko lehiaketak egiten genituen zuri-beltzezko telebista aitzakia hartuta. Iragarkien lehen irudiekin eta soinuekin zein markarenak ziren asmatzea izaten zen kontua. Orain, ohartu naiz gauzak zaildu egin direla. Batetik, publizitateak forma desberdin ugari hartu dituelako: saio babestuak, aurkezlearen aipamenak, gainprimaketak, publierreportajeak, mikrospotak, e.a. Bestetik, gero eta gaitzagoa delako mezuaren eta markaren artean bikoteak egitea.

Azken denboraldian, iragarkia hasieratik amaierara irentsi eta azken segundoetan ageri den markarekin erlaziorik ez ikustea suertatzen zait sarritan. Antzera gertatu zait amaitu(?) berri diren hauteskundeetako propagandarekin. Alderdi desberdinek erabili dituzten hitz-gako, lelo, irudi, aipamen, eta abarretan korapilatu naiz, azkenean, botoa norentzako eskatuko zuten ez jakin arte. Aitortu beharra daukat albistegia eta iragarki politikoen arteko muga non zegoen jakitea ere kostatu zaidala

HEZKUNTZA DEBAGOIENEAN



‘Profesional Mundura Zabalik’ lelopean, ekainaren 2tik 11ra irekita dago aurrematrikula epea

# Arizmendiko Lanbide Heziketa, lan mundutik gertuen dagoen ikasteko aukera

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketako eskaintza Arrasaten kokatzen da, Mugimendu Kooperatiboa sortu zen herrian, hain juxtu. Gure bermerik onena inguruko enpresen eta zerbitzuen beharretan oinarritutako irakaskuntzan 14 urteko esperientzia da.

Urte horiek guztietan gure ikasleak profesional gaitu bihurtu ditugu, laneratze maila altuarekin.

Lanbide irakaskuntzaren esparruan egiten dugun eskaintza lau arlotan banatuta dago: Kirola, Osasuna, Ingurugiroa eta Eraikuntza eta Obra Zibila.

Praktikak egiteko programa ezberdinak ditugu, egindako ikasketekin lotutako sektoreko punta-puntako enpresetan, estatu mailan eta baita atzerrian ere, Leonardo Programaren bidez.

*Ikasleek, ikasten ari diren bitartean, lan egiteko aukera dute*

Pedagokikoki berritzaileak gara eta gure helburua ikaslearen prestakuntza gaitua lortzea da. Horretarako, irakaskuntza gaurkotua erabiltzen dugu, lan munduko gungo nahiz etorkizuneko beharretan oinarritutakoa.

Arizmendin gure ikasleek behar dituzten azpiegitura guztiak ditugu: mediateka, jangela, ikus-entzunezkoen gela, kiroletako guneak, etab., eta azpiegitura tekniko zabala.

Ahaztu barik gure Lan Poltsa, Orientabide Departamentua eta ikasleek ikasten ari diren bitartean lan egiteko aukera dutela.

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa INEMek homologatutako zentro kolaboratzailea da.

## Aukera eta Irteera anitzak

### ANALISIA ETA KONTROLA

Ingurumenaren esparruan kokatzen da goi mailako titulazio berri hau. Analisi fisiko, kimiko eta elikagaien azterketak egiteko prestatzen dira ikasleak. Analisia eta kontrola edozein prozesu produktibo optimizatzeko ezinbesteko baldintza bihurtu da.

### ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILAK

Teoria eta Heziketa praktikoa bateratuz, lan merkatuan irtenbide gehien dituen alorretako batean prestatzen ditugu ikasleak. Goi mailako ikasketa da hau.

### INGURUMENA

Gizarteak gero eta kontzientzia maila altuagoa du prozesu industrialak hobetzeko beharrez, ingurumena hobeto zaintzeko. Hau dela eta, goi mailako titulazio honek irteera haundia dauka gaur egunean.

### OSASUNGINTZA

Gaixoaren zainketaren harreman estuena duen espezialitatearen titulua lortzen da urtebeteko ikasketa teoriko-praktikoak egin ondoren. Etorkizun handiko erdi mailako titulazioa.

### KIROLA ETA EKINTZA FISIKOEN ANIMAZIOA

Goi mailako titulazio honek irteera ezberdin asko ditu, gizarteak gero eta arreta haundiagoa eskaintzen baitio osasunari eta gorputzaren zainketari.

Arizmendi
ikastola
LANBIDE HEZIKETA

MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA




www.arizmendikoop.org

aurrematrikula epea
zabalik
[ ekainaren 2tik 11ra ]

matrikula epea
[ekainaren 30tik uztailaren 4ra]

Informa zaitez!
902 11 20 25

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko maiatzaren 30a


*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Markel Irizar/ Txirrindularia

**Frantziako Tourra ala minbiziaren kontrako lasterketa, zein da gogorragoa?**

Frantziako Tourra probatu barik dut, baina minbiziarena oso gogorra da. Hala ere, minbiziarena gainditu egin dudanez, espero dut egunen baten Tourrera joatea eta han ere lasterketa ondo eramatea aurrera.

**Ikusten da minbiziaren atzaparretatik inor ez dagoela salbu.**

Beharbada topikoa da, baina askok uste dute kirolaria eta gaztea izanez gero ezin daitekeela ezer gertatu. Azkenaldian, ordea, kirolari askori egokitu zaigu minbiziari aurre egin beharra.

**Eta aurre egiteko zer behar da?**

Garrantzitsua da gaitza agudo hartzea. Gero, psikologikoki norbera indartsu eta animatuta egotea, eta inguruko jendeak ere asko laguntzen du.

**Hasi zara berriro lasterketetan. Zelan ikusi duzu zeure burua?**

Uste baino hobeto. Otsailaren 1ean kimioterapia saioak eta medikamentuak hartzen nenbilen, erabat abailduta; hiru hileren buruan, berriz, lasterketan parte hartzen eta aurreneko 20 txirrindularien barruan. Errenterian gertatu zen hori, eta gustura ibili nintzen, ihesaldia ere egin nuen-eta. Lehengo maila ez dudala galdu uste dut, eta hori da garrantzitsuena.

**Denboraldirako zein asmo dituzu?**

Profesionaletara saltoa emateko ilusiorik ez banu ez nuke bizikletaren gainean segituko. Gaixotasunari aurre egiteaz gainera, lehiarako berriro martxan jartzea nahiko gogorra izan da.

**Tarta zatia mahai gainean izan, eta albora utzi behar denboraldian bete-betean zaudetelako. Gogorra, ezta?**

Bai, eta gainera ni jatuna naiz, baina zer erremedio! Niretako, txirrindularitzak dena du ona, hori izan ezik. Pisua zaindu egin behar da, eta dezente galdu dugun arren, medikuak oraindik hiru kilotxo kendu behar ditudala esan dit.

**Hasi zinenean, pentsatzen zenuen sekula tartak ere albora utzi beharko zenituenik?**

Guztiz alderantziz. Hasi nintzenean oso *mikoa* nintzen jaten. Nik uste dut debekua nahikoa izan dela hori gustatzeko, lehen ez nintzen-eta tarta eta pastelzalea.

**Idolorik izan duzu txirrindularitzan?**

Abraham Olano eta Laurent Jalabert, txirrindularitzaz aparte pertsona moduan asko demostratu dutelako. Nire erreferentzia, baina, Jon Odriozola izan da beti. Herrikoa da, eta entrenatzen ere ibiltzen gara elkarrekin. Beti segitu ditut haren kontseiluak.

**Horrenbestez, esan daiteke kirola dela zure bizitzaren ardatz.**

Hau gustatzen zait, eta gaitza izan nuenean, uztea pentsatu nuen, ia bizitza osoa bizikletari eskaini ondoren beste gauza batzuk proba nitzan, bizitza motza da-eta. Hala ere, hau gustatzen zait; gehien, honek betetzen nau, eta bizikletarekin zoriontsu naiz. Horregatik gurako nuke profesionaletara pasatu, ez beste edozein arrazoirengatik.



**“Saltoa emateko ilusiorik ez banu, ez nuke bizikletaren gainean segituko”**

**“Nire erreferentzia Jon Odriozola izan da beti”**

**“Gehien honek betetzen nau, eta bizikletarekin zoriontsu naiz”**

► *Oñatiarra / 23 urte / Orbea-Olarra-Consultec taldekoa*

## PIPERRAUTSA

### *Jarraituko?*

Ez bada oraindik hauteskundeetako parafernalia gorde, kasik ez gordetzea hobe. Agian hauteskundeak izango ditugu berriro udazkenean.

Orain baino lehen, esan ohi da Ibarretxek hauteskundeak deituko zituela, baldin eta alderdien artean ez bazuen lortzen bere planarekiko atxikimendu handiagorik. Nonbait uste du gizartean babes zabalagoa lor dezakeela Legebiltzarrean baino. Eta nola lehen urratserako ezingo lukeen erreferendumik deitu, hauteskundeak baliatuko lituzke egoera gainditzeko. Hau da, Legebiltzarra desegin eta hauteskunde berriak deituko lituzke, zuzenean bere planari babesa eskatuz.

Badirudi hipotesi honek indarra hartu duela domekako emaitzen aurrean. Dagoeneko ikusi dut kalkulatuta emaitza horien araberako Legebiltzarra. EAJ-EA koalizioak 35 eserleku hartuko lituzke eta Ezker Batuak 5. Bien artean 40, beste guztiek 35. Gehiengo osoa, beraz, eta plana aurrera.

Arriskua agerian dago, zerbaitek kale egingo balu egoera gaiztotu egingo luke. Eta populismo ustez zintzoak izan ditzake bilakaera beldurgarriak. Baina onurak ere bistan daude. Ezinezkoa dirudi alderdien artean ezer ganorazkorik adostea eta egoera usteltzen ari da. Eta herritarron borondatea da legitimitate iturri nagusia, edozein egitasmo aurrera eramateko.

Udazkena bertan da eta kanpainak jarraitu egin lezake. Ez gorde trasteak.

MIKEL IRIZAR


